



NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

2020. urtea

65. zenbakia

Osteguna, martxoaren 26a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.1. Foru legeak eta legegintzako foru dekretuak

- 2/2020 FORU LEGE-DEKRETUA, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

3972

1.1.3. Foru Aginduak

- 16/2020 FORU AGINDUA, otsailaren 12koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abuztuaren 14ko 140/2009 Foru Agindua aldatzen duena (foru agindu horrek Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziaren autolikidaziorako 576 eredia eta Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziko zerga onurak eskatzeko 05 eredia onetsi, eta horiek Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen zituen).

3976

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

- 49/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 16koa, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, abenduaren 18ko 196/2019 Foru Agindua aldatzen duena Barne Zuzendaritza Nagusiari dagokion atalean.

3977

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

- 421/2020 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren

Zerbitzuko zuzendariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 16ko 331E/2019 Foru Agindua gauzatzen duena.

3977

- 501/2020 EBAZPENA, otsailaren 27koa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 17ko 4E/2020 Foru Agindua gauzatzen duena.

3977

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

- 202/2020 EBAZPENA, martxoaren 3koa, Osasuneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez deialdia onesten baita 2020. urteko urtariletik azarora bitarteko osasun programetarako dirulaguntzak emateko toki entitateei, fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko elkartei. DDBN identifikazioa: 499374.

3978

1.7. BESTELAKOAK

- 35/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 6koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Ondare Zerbitzuaren esku uzten duena Nafarroako Foru Ogasuna izeneko erakunde autonomoari buruzko kontratazio publikoko prozedurak ireki, tramitatu eta horien ebazpen proposamena egitea.

3989

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

3990

- AGOITZ

3990

3. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

3991

6. BESTELAKO IRAGARKIAK

3992

6.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK

3992

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.1. Foru legeak eta legegintzako foru dekretuak

2/2020 FORU LEGE-DEKRETUA, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun publikoko larrialdiari, gaitza nazioartean zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikorako arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzeko duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez (martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldaturik), alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

463/2020 Errege Dekretu horrek 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritzak Gobernua izanen da, bai eta, zein bere ardura eremuan, ministerio hauetako titularrak ere: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere kasuan kasuko agintaritzaren zuzeneko aginduen esparruan.

Horrela, COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortu duen egoera bereziaren ondorioz, zeharo ohiz kanpokoa baita, aparteko eta presako zenbait neurri hartu dira, osasun publikoko arazoietan oinarrituta. Horregatik, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez, premiazko neurri batzuk onetsi ziren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Ohizko kanpoko premia bereziko inguruabarrak ikusita, beharrezkoa da beste neurri sorta bat ezartzea, foru lege-dekretu honetan jaso direnak, hain zuzen.

COVID-19aren ondoriozko aldi baterako zailtasunen aurrean jarduerak ekonomikoari eusteko beharrezkoa den likidezia bermatzeko asmoz hartu diren neurrien artean, beharrezkoa da zenbait neurri ezartzea indarrean dauden kontratu publikoen esparrurako, izan ere, alarma egoeraren deklarazioak edo horren ondoriozko neurriek eragina izan dezakete kontratu horiek egoki bete daitezela. Hala, kontratuak eteteko edo/eta luzatzeko berariazko araubide bat aurreikusten da kontratuak suntsiaraz ez daitezela, eta behar diren baldintza eta egoerak ezartzen dira eteten diren kontratu publikoen adjudikaziodunek ordain bat hartu ahal izan dezaten kalte-galerengatik, lehenbizi, egoera honen eragin ekonomikoa arintzeko eta, ondoren, jarduerak erreperatu ahal izateko.

Ido beretik, zenbait neurri hartu behar dira Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren dirulaguntzak emateko baldintzak aldatu ahal izateko, dirulaguntzen xedeko zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea osorik edo partez ezinezkoa den egoerarako.

Bestalde, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduaren bidez hainbat neurri osagarri ezarri ziren gizarte zerbitzuetako egoitzen esparrua antolatzeko eta haietan informazioa banatzeko COVID-19ak eragindako osasun krisiaren kudeaketari buruz (2020ko 81. Estatu Aldizkari Ofiziala, martxoaren 24koa). Agindu horren hirugarren apartatuan ahalmena ematen zaio kasuan kasuko autonomia erkidegoko agintaritzak eskudunari agindu horren xedeko egoitzetan esku hartzeko, lurralde horretan edo egoitza bakoitzean izurriak eta laguntza-baliabideek duten egoeraren arabera, betiere behar eta proportzionaltasun irizpideei jarraikiz. Esku-hartze horren ondorioz, osasun publikoko arazoak justifikatuz gero honakoak agintzea aurreikusten da besteak beste: egoiliarrei alta edo baja ematea; egoiliarrei lurralde bereko beste egoitza publiko edo pribatu bat esleitzea eta hara eramatea; egoitza berriak abian jartzeko behar diren neurriak ezartzea eta dauden egoitzen edukiera edo antolara aldatzea; eta langile publiko bat izendatzea egoitzaren laguntza-jarduerak zuzendu eta koordinatzeko, martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduaren bigarren apartatuaren 1. zenbakiaren b), c) eta d) taldeetan sailkatutako pazienteak dituzten egoitzen kasuan.

Horri dagokionez, kontuan hartzekoa da, orobat, martxoaren 15eko SND/232/2020 Agindua, zeinaren bidez giza baliabideen eta baliabide materialen arloko neurri batzuk hartu baitziren COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko. Agindu horren 8. apartatuak xedatzen du ezen, COVID-19aren epidemiaren bilakaeragatik edo eraginagatik ezinezkoa bada herritarrei behar bezalako osasun laguntza ematea kasuan kasuko autonomia erkidegoak dituen baliabide material eta giza baliabideekin, autonomia erkidegoek eskura izanen dituztela osasun zentro eta

establezimendu pribatuak, baita hango langileria ere, eta lan istripuetarako mutualitateak.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jarduketan arloan, harrerako baliabideak –apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean arautuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak kudeatuak– Gizarte Zerbitzuetako zerbitzuen zorroan bermatutako baliabideak dira, eta, beraz, bai baliabide horien kopurua, bai haietako bakoitzaren gehieneko iraupena, ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan daude arautuak, zerbitzuen zorro hori ezartzen duen arauan, alegia.

Alarma egoera eta biztanleriaren konfinamendua indarrean jarri zirenetik, lanean ari gara baliabide horietan behar bezalako baldintzak izan daitezela osasun arloko agintariek emandako gomendioak bermatu ahal izateko, hala balizko kasu positiboak bakartzeari buruzkoak, nola baliabideen erabilzaila guztien konfinamenduari buruzkoak. Gainera, beste neurri batzuk ere aplikatu dira, eta horien ondorioz erabilzaila batzuk lekualdatu, hori guztia osasun alertak irauten duen bitartean gerta litezkeen presako sarreretarako lekua izateko. Horren ondorioz, litekeena da baliabide horietan egoteko gehieneko aldiak aldatzea, eta, horregatik, bidezkoa da horren gaineko neurriak hartzea.

Etxebizitzaren arloan, neurrien helburu nagusia da erraztasunak ematea etxebizitza babestuen sustapenaren arloan eta etxebizitza babestuen birgaitzearen arloan abian dauden espedienteek beren bidea segi dezaten, jarduera ekonomikoaren motorrak diren aldetik, eta, halaber, egoera ekonomiko ahulean dauden familiei laguntzea, etxebizitza libre edo babestu batean errentari daudenean. Gainera, etxebizitza babestuei dagokionez, enpresa sustatzaileek errenten ordainketa atzeratzearen edo barkatzearen alde egiten du. Proposatutako neurriak erraz eta azkar ezar daitezke, eta haiei lotutako eskaerak telematika bidez aurkezten ahal dira, ezarrita dauden plataformen bitartez. Hori guztia deusetan galarazi gabe epe laburrean edo ertainean beste neurri batzuk hartzeko aukera, egoeraren arabera, gaur egun zeharo aldarorra baita.

Beste alde batetik, Nafarroako Planeamenduen Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen duen urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuak, azken xedapenetako bigarrenaren, xedatzen du foru dekretuak sei hilabeteko epean hartuko duela indarra, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita. Foru dekretu hori 2019ko 216. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 31koan. Hortaz, maiatzaren 1ean hartuko du indarra.

COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak xedatu du sektore publikoko prozedurak tramitatzeko epeak etetea eta mugaezko bertan behera uztea. Etete horiek eragina dutenez lurraldearen antolamendurako tresnak prestatu eta onesteko prozeduretan, eta, ondorioz, baita tresna horien ondoko erregistroan ere, egoki ikusi da foru dekretu horrek indarra hartzeko eguna atzeratzea, tresna berriak onesteko egunak eta ondoren erregistratzekoak koordinatzearen eta tresnak txertatzeko aurretiazko prestakuntzarako epe bat bermatzearen, toki entitateetako hirigintza zerbitzuei, langileei eta hautetsiei begira.

Zerga arloan, jarduerak etetearen edo gutxitzearen ondorioz kaltetuak izanen diren autonomoen eta enpresen likidezari laguntzearen, neurri batzuk hartzen dira zerga betebeharrak bete ditzaten erraztasunak emateko, hots: zerga prozeduretako epeak etetea edo luzatzea; zenbait autoliquidazio edo aitorten informatibo aurkezteko epeak etetea edo luzatzea; zenbait tributu zor ordaintzeko epeak etetea edo luzatzea; persona fisikoaren errentaren gaineko zergaren ondoriozko zenbait ordainketa zatikatu kentzea; eta tributu zorrak zatikatu eta geroratzeko ohiz kanpoko araudi bat ezartzea.

Honaino azaldu diren arazoek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, aipatu neurriak berehala hartzea behar-beharrezkoa baita.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakariatzeko, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2020ko martxoaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorri,

DEKRETATZEN DUT:

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege-dekretu honen xedea da neurri bereziak hartzea koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko.

I. TITULUA

Neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren foru-sektore publiko instituzionalaren kudeaketa eraginkorra egiteko

2. artikulua. Kontratazio publikoaren eta itun sozialen arloko neurriak.

1. Zerbitzuak eta hornidurak emateko kontratu publikoak, segidako prestazioak, automatikoki etenda geldituko dira kontratua betearaztea ezinezkoa den partean, baldin eta Foru Lege-dekretu honek indarra hartzen duenean indarrean badaude, kontratu bakoitza adjudikatzekeo uanean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte eta COVID-19ak sortutako egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik kontratu horiek osorik edo partez gauzatzea ezinezkoa bada; etendura kontratuaren prestazioa galarazten duen izatezko edo zuzenbidezko egoera gertatzen denetik prestazio hori berriz has daitekeen unera artekoa izanen da. Ondorio horietarako, ulertuko da prestazioa berriz abian jar daitekeela hura gauzatzea galarazten duten inguruabarrak edo neurriak bertan behera gelditzen direnean. Hartara, kontratazio-organoak etetea bukatu dela jakinaraziko dio kontratistari.

Aurreko paragrafo batean aipatutako kontratu bat etenda egon edo ez, haren epemugan formalizatu gabe badago kontratu berria, kontratazio-prozedurak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoak eraginda, gelditzearen ondorioz prestazioaren jarraipena bermatuko duena, eta ezin bada kontratu berria formalizatu, jatorrizko kontratua luzatzen ahal-ko da kontratu berria betetzen hasi arte eta, betiere, bederatzita hilabeteko eperako gehienez ere, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe eta edozein izanik ere espediente berri horren lizitazioa argitaratzeko eguna. Aipatutako martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu du, eta martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu zuen.

2. Aurreko puntuan aipatutakoak ez diren zerbitzuetako eta hornidurako kontratu publikoetan, baldin eta foru lege-dekretu hau indarrean sartzen den uanean indarra badute eta kontratu bakoitza adjudikatzekeo uanean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte, eta kontratu horien xedea ez bada bukatu COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz, kontratistak betetzen ez dituzten kontratuen ezarritako epeak COVID-19ak sortutako egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik, eta kontratistak berak adierazten badu bere konpromisoak beteko dituela indarrean dagoen hasierako epea edo luzapena handitzen bazaio, kasu horretan epea luzatuko zaio aipatutako arrazoiarengatik galdutako denbora bezainbeste, kontratistak ez badu bederen epe txikiagoa eskatzen. Epea luzatuko da kontratuaren unitate kudeatzaileak txostena egin ondoren (txosten horretan adieraziko da atzerapena ezin zaiola egotzi kontratistari eta COVID-19aren ondoriozkoa dela).

3. Obretako kontratu publikoak automatikoki etenda gelditzen ahal-ko dira, baldin eta foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean indarrean badaude, kontratu bakoitza adjudikatzekeo uanean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte eta COVID-19ak sortutako egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik kontratu horiek xedea galdutako edo badute, eta, egoera hori dela eta, kontratua betetzen jarraitzerik ez badago; etendura kontratua betetzea galarazten duen izatezko edo zuzenbidezko egoera gertatzen denetik prestazioa berriz has daitekeen unera artekoa izanen da. Ondorio horietarako, ulertuko da prestazioa berriz abian jar daitekeela hura gauzatzea galarazten duten inguruabarrak edo neurriak bertan behera gelditzen direnean. Hartara, kontratazio-organoak etetea bukatu dela jakinaraziko dio kontratistari.

4. Artikulu honetako 1. apartatutik 3. era bitartekoetan bildutako kasuetan, ez zaio zigorrik ezarri kontratistari, ezta kontratua suntsiaraziko ere. Horrez gain, puntu honetako bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak bete ondoren, kalte-ordainak jaso daitezke kontzeptu hauengatik:

1.–Kontratistak kontratuaren exekuzio arruntari atxikitako langileei eteteak irauten duen bitartean benetan ordaindutako soldata-gastuak.

Artikulu honetako 2. apartatuan aipatzen diren zerbitzu edo hornidurako kontratuetan, COVID 19agatik galdutako denboraren ondorioz benetan izan diren soldata-gastu gehigarriak ordaintzeko eskubidea ez da gehienez ere kontratuaren hasierako prezioaren 100eko 10 baino handiagoa izanen, BEZa barne dela.

2017ko irailaren 26an argitaratutako 2017-2021 eperako eraikuntzaren sektoreko VI. lan-hitzarmen kolektibo orokorraren edo negoziazio kolektiboaren bestelako esparruetan hitzartutako antzeko hitzarmenen arabera, obra kontratuetan ordaindu beharreko soldata-gastuak izanen dira oinarritzeko soldata, eraikuntzaren sektoreko lan-hitzarmen kolektiboko 47.2.a artikuluan aipatutakoa, desgaitasunagatik osagarria, aipatutako

hitzarmeneko 47.2.b. artikuluan aipatutakoa, aparte haborokinak, aipatutako 47.2.b. artikuluan aipatutakoak, eta oporren ordainsariak, edo eraikuntzaren sektoreko beste lan-hitzarmen kolektibo batzuetan hitzartutako kontzeptu baliokideak.

Beti ere, martxoaren 14a baino lehen kontratuaren exekuzio arruntari atxikita zeuden eta kontratua berriz ezartzean atxikita dauden langileen gastuak hartuko dira kontuan.

2.–Behin betiko bermea mantentzeagatik gastuak, kontratuaren etete-aldiari dagozkionak.

3.–Makinariaren, instalazioen eta ekipamenduen alokairu gastuak edo mantentze-lanen kostuak, baldin eta kontratistak frogatzen badu baliabide horiek ezin izan direla erabili etendako jarduera edo zerbitzua betetzea ez den beste xede baterako, eta kostu horiek ez badute gainditzen makineria, instalazio eta ekipamenduak alokatzekeo edo mantentzekeo kontratuak suntsiaraztearen kostua.

4.–Pleguan ezarrita dauden eta kontratistak kontratuaren xederako izenpetu dituen aseguru polizeei dagozkien gastuak, baldin eta kontratua etetean indarrean badaude.

Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea onartu eta artikulu honetan aipatzen diren kalte-ordainak ordainduko dira baldin eta kontratista nagusiak behar bezala frogatzen badu baldintza hauek betetzen direla:

–Hark edo kontratua betetzeko kontratatu dituen azpikontratistek eta hornitzaileek egunean zituztela beren lan eta gizarte arloko betebeharrak 2020ko martxoaren 14an.

–Kontratistak berak 2020ko martxoaren 14an egunean zituela azpikontratistei eta hornitzaileei ordaindu beharrekoak, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 153. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Puntu honetan xedatutakoa soilik aplikatuko da kontratazio organoak, kontratistak hala eskatzen duenetik bost egun naturaleko epean, kontratua hasieran hitzartutako baldintzetan gauzatzea ezinezkoa dela ikusten duenean, artikulu honetako 1. apartatutik 3.era bitartekoetan azaldutako egoeragatik. Xede horrekin, kontratistak eskaera igorriko du kontratazio organora honako hauek adieraziz: kontratua betetzea ezinezkoa egin duten zergatiak; une horretan kontratuaren exekuzioari atxikitako langileak, egoitzak, ibilgailuak, makineria, instalazioak eta ekipamenduak; eta kontratistak zergatik ezin dituen kontratu honetan aipatutako bitartekoak erabili. Eskaeran azaldutako inguruabarrak egiaztatzen ahal-ko dira geroago. Aipatutako epea igaro bada kontratistari berariazko ebazpena jakinarazi gabe, ezetsizat joko da.

5. Obra-emakiden eta zerbitzu-emakiden kontratu publikoetan, foru lege-dekretu hau indarrean sartzen den uanean indarrean badaude, eta kontratu bakoitza adjudikatzekeo uanean Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen kontratazio publikoaren arloko araudiaren mende dauden entitateek egin badituzte, COVID-19ak izatezko edo zuzenbidez sortutako egoerak eta administrazio publikoek egoera horri aurre egiteko hartutako neurriek eskubide emanen diote emakidadunari kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko, emakidaren hasierako iraupen-aldia gehienez ere 100eko 15 luzatuz edo kontratuko baldintza ekonomikoak aldatuz, kasu bakoitzean bidezkoa den bezala.

Beti ere, berronena horrek emakidadunei konpentsazioa emanen die diru-sarrerak galdutako edo jasandako kostuak handitu direlako. Horien artean daude COVID-19ak izatez sortutako egoerak irauten duen bitartean benetan ordaindu dituzten soldata-gastu gehigarri posibleak, obren edo zerbitzuen emakida-kontratuaren exekuzio arruntan aurreikusitakoekin alderaturik. Konpentsazioa egingen da soilik emakidadunak alde aurretik eskatu eta behar bezala frogatzen badu gastu horiek benetan eta eraginkortasunez izan direla eta gastu horiek zenbatekoak izan diren.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko da soilik kontratazio organoak, emakidadunak eskaturik, lehen paragrafoan azaldutako egoeraren ondorioz kontratua betetzetik ez dagoela ulertzen duenean.

6. Artikulu honetako 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitakoa ez zaie inola ere kontratu hauei aplikatuko:

a) Zerbitzu edo hornidura sanitarioko, farmazeutikoko edo bestelakoetako kontratuak, haien xedea COVID-19ak eragindako osasun krisiari lotuta badago.

b) Sistema informatikoen mantentze-lanetarako kontratuak.

c) Garraioko azpiegituren eta zerbitzuen mugikortasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzuetako edo hornidurako kontratuak.

Ulertzen da artikulu honetan aurreikusitako araubideak ez dituela ezertan galarazten Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak pertsonak, ondasunak eta tokiak babesteko beharrezkoak diren prestazioak bermatzeko har ditzakeen neurriak, horretarako agintari eskudun izendatzen baitu COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 4. artikulua. Neurri horiek berekin ekar dezakete, besteak beste, aldatzea kontratuen etendura zilegi den kasuak.

7. Kontratazio organoak kontratu bat alda dezake, pertsonak babesteko premiek eta COVID-19ri aurre egiteko Nafarroako Gobernuak harturiko beste neurri batzuek eraginda, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege Dekretuaren 15. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren basean; izan ere, foru lege horren bidez premiazko neurriak onesten dira COVID-19 koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Horrelakoetan, kontratazio organoak finkatuko ditu hasierako kontratuan ez zeuden unitate berrien prezioak edo beren ezaugarrietan funtsezko aldaketa bat izan dutenenak, eta prezio horiek nahitaezkoak izanen dira kontratistarentzat. Alarma egoera bukatutakoan, aldaketa espedientea tramitatu da Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 143.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Aipatutako kasuetan, kontratua aldatzearen ondorioz hasieran aurreikusitako unitate kopurua murrizten bada, kontratistak ez du izanen inongo kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik.

8. Aurreko apartatuetan adierazitako neurriak aplikatuko dira, halaber, osasun arloko eta gizarte zerbitzuetako itun sozialetan.

3. artikulua. Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak emandako dirulaguntza publikoen arloko neurriak.

1. Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak baimena ematen ahaliko dute onartutako dirulaguntzak emateko baldintzak aldatzeko, partez edo guztiz ezinezkoa bada diruz lagundutako jarduerak gauzatzea edo zerbitzuak ematea, COVID-19ren ondorioz edo administrazio publikoek haren aurka hartutako neurrien ondorioz. Gauzatu ezin den zatia aldatuko da, jarduera betetzea edo zerbitzua ematea galarazten duen izatezko egoera gertatzen denetik betetzea edo ematea berriz has daitekeen unera arte.

2. Foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenean deituta edo onartuta dauden dirulaguntzen kasuan, baldin eta dirulaguntzaren xede diren jardueren edo zerbitzuen xede bukatu ez bada COVID-19ren ondorioz, dirulaguntzaren onuraduna den pertsonak edo entitateak betetzen ez dituzten oinarrietan edo hitzarmen arau-emaelean ezarritako epeak COVID-19ak sortutako egoerarengatik edo administrazio publikoek gaitzaren kontra hartutako neurriengatik, eta onuradunak berak adierazten badu bere konpromisoak beteko dituela hasierako epea luzatzen bazaio, kasu horretan dirulaguntza ematen duen organoak epea luzatzen ahaliko dio, aipatutako arazoiarengatik galdutako denbora bezainbeste, onuradunak txikiagoa eskatzen ez bada bederen. Epea luzatuko da dirulaguntza kudeatzen duen unitateak txostena egin ondoren (txosten horretan adieraziko da atzerapena ezin zaiola egotzi onuradunari eta COVID-19ren ondoriozkoa dela).

3. Artikulu honetako 1. apartatuan bildutako kasuetan ez da dirulaguntza itzuli beharko, eta, gainera, hurrungo apartatuan ezarritako baldintzak bete gero, kontzeptu hauek ere diruz lagungarriak izanen dira:

1.–Dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituen soldata gastuak, diruz lagundutako jardueraren edo zerbitzuaren ardura duten langileei eta horiek gauzatzea ezinezkoa den denbora tarteari dagozkionak. Gehienez ere dirulaguntzaren % 10 izaten ahaliko dira gastu horiek.

Beti ere, dirulaguntzaren xede den jarduera edo zerbitzuaren exekuzio aruntari martxoaren 14a baino lehen atxikita zeuden eta berriz hastean atxikita jarraitzen duten langileen gastuak hartuko dira kontuan.

2.–Instalazioen eta ekipamenduen alokairu gastuak edo mantentze-lanen kostuak, baldin eta pertsona edo entitate onuradunak frogatzen badu baliabide horiek ezin izan direla erabili etendako jarduera edo zerbitzua gauzatzea ez den beste xede baterako, eta kostu horiek ez badute gainditzin instalazio eta ekipamenduak alokatzeko edo mantentzeko kontratuak suntsiaraztearen kostua.

3.–Oinarrietan aurreikusitako aseguru polizei dagozkien gastuak edo horien parekoak, indarrean daudenak jarduera edo zerbitzua eten behar dela onartzen den unean.

Apartatu honetako ordainketarako eskubidea onartuko da baldin eta dirulaguntzaren onuradun den pertsonak edo entitateak behar bezala frogatzen badu baldintza hauek betetzen direla:

–Hark edo diruz lagundutako jarduera edo zerbitzua gauzatzeko kontratatu dituen azpikontratistek, beharrezkoa bada, egunean zituztela beren lan eta gizarte arloko betebeharrak 2020ko martxoaren 14an.

–Onuradunak berak 2020ko martxoaren 14an egunean zituela bere azpikontratistei ordaindu beharrekoak, merkataritzako eragiketarako berankortasunaren kontrako araudian ezarritako baldintzetan.

4. Aurreko apartatuan xedatutako soilik aplikatuko da dirulaguntza ematen duen organoak irizten dionean, dirulaguntzaren onuradun den pertsonak edo entitateak hala eskatzen duenetik hasita bost egun naturaleko epean, ezinezkoa dela dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzea edo zerbitzuak ematea hasieran ezarritako baldintzetan, 1. apartatuan azaldutako egoerarengatik. Xede horrekin, dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo entitateak eskaera igorriko dio organo emaileari honako hauek adieraziz: diruz lagundutako jarduerak edo zerbitzuak gauzatzea ezinezkoa egin duten zergatiak; diruz lagundutako jarduera edo zerbi-

tzuari une horretan atxikitako langileak, egoitzak, ibilgailuak, instalazioak edo ekipamenduak; eta dirulaguntzaren onuradunak zergatik ezin dituen aipatutako bitartekoak beste jarduera batean erabili. Eskaeran azaldutako inguruabarrak egiaztatzen ahaliko dira geroago. Aipatutako epea igaro bada dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo entitateari berariazko ebazpena jakinarazi gabe, ezetsitatzeko joko da.

4. artikulua. Behin-behineko zentro soziosanitarioak.

1. Eskubide Sozialetako Departamentuak zentro soziosanitario berriak abian jartzen ahaliko ditu, horien bidez indartzeko edo modu alternatiboan emateko sektore kalteberak edo COVID-19ren ondoriozko osasun krisiak nahiz krisi horren kariaz harturiko neurriek ukitutako kolektiboek behar duten arreta.

2. Zentro horiek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren mende egonen dira organikoki, agentzia horren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 301/2019 Foru Dekretuaren 22.1 artikuluan jasotako zentro berekiak bezalaxe.

3. Zentro horietako zuzendaritza karguak izendapen librearen bidez bateko dira, Nafarroako Administrazio Publikoetako bateko edo horietako bati atxikitako funtzionarioen artean; Eskubide Sozialetako kontseilariaren foru agindu bidez izendatuko dira.

Zentro horietako zuzendarien ordainsariak atalburuen ordainsarien parekoak izanen dira, baldin eta 50 toki baino gutxiago badituzte, eta zerbitzuetako zuzendarien ordainsarien parekoak, 50 toki baino gehiago badituzte.

5. artikulua. Osasun Departamentuaren eskura jartzea osasun zentro eta establezimendu pribatuak eta laneko istripuen mutualitateak, eta horietan aritzen diren langileak.

Osasun Departamentuaren eskura jartzen ahaliko dira, Osasuneko kontseilariaren foru agindu baten bidez, osasun zentro eta establezimendu pribatuak eta laneko istripuen mutualitateak, baita horietan aritzen diren langileak ere, beharrezkoa den denbora tartetarako, COVID-19ren epidemiak aurrera egitearen edo kalteak sortzearen ondorioz herritarrei ezin bazaie osasun arreta egokia eman osasun sistema publikoari atxikitako langileekin eta baliabide materialekin.

Aurreko paragrafoan aipaturiko entitateen zerbitzuko langileak, Osasun Departamentuaren eskura jarriak izan ondoan, dagokion entitateen zerbitzu ematen jarraitzen ahaliko dute, edo osasun zentro publiko batera atxikitzen ahaliko dira zuzenean; nolana ere, indarra izaten segituko dute, ondorio guztietarako, departamentuaren eskura jarri aurretik zuten lan kontratuak, aurreikuspen sozialeko araubideak eta beste aurreikuspen, estaldura, onura, eskubide edo betebeharrak orok.

6. artikulua. Genero-indarkeriaren biktimezako harrerako baliabideetan egoteko gehienezko aaldiak.

Indarrak gabe uzten dira genero-indarkeriaren biktimezako harrerako baliabideetan (larrialdi zentroa, babes etxea eta egoitza-pisuak), ekainaren 17ko 260/2008 Foru Dekretuak bermatutakoetan, egoteko gehienezko aaldiak, alarma egoerak egoerak irauten duen bitartean.

II. TITULUA

Neurri bereziak etxebizitzaren arloan

7. artikulua. Bizigarritasun zedulen indarraldia eta sustatze eta birgaitze babestuko obrak bukatzeko epeak.

1. 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarte bukatzeko epea duten bizigarritasun zedulen indarraldia luzatzen da 2020ko abenduaren 31ra arte, bai eta bizigarritasun zedula lortzeko eskubidea ematen duten behin betiko kalifikazioena ere.

2. Etxebizitza babestua sustatzeko espedienteen kasuan, behin-behineko kalifikazioa 2020ko ekainaren 30a baino lehen lortua baldin badute, sustatzaileek 48 hilabeteko epea izanen dute 2020ko urtarrilaren 1etik hasita– behin betiko kalifikazioaren eskaera aurkezteko, erregelamenduzko luzapena galarazi gabe.

3. Birgaitze babestuko espedienteen kasuan, behin-behineko kalifikazioa 2020ko ekainaren 30a baino lehen lortua baldin badute, birgaitze lanak gehienez 12 hilabeteko epean hasi beharko dira, behin-behineko kalifikazioa ematen denetik. Aipatu behin-behineko kalifikazioa ematen denetik hasita, 48 hilabeteko epea izanen da behin betiko kalifikazioa eskatzeko, erregelamenduzko luzapena galarazi gabe.

4. Etxebizitza arloan eskudun den departamentuaren titularrari gaikuntza ematen zaio aurreko datak eta epeak aldatzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko foru agindu baten bidez.

8. artikulua. Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna deritzon (ERREGEROSNA) adierazlearen zenbatekoa.

2019ko zerga-ekitaldirako, Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) deritzon adierazlearen balioa 8.616,98 eurokoa da.

9. artikulua. Etxebizitza babestua sustatzea.

Etxebizitza libreak eta etxebizitza babestuak izan daitezke eraikin berean, eta etxebizitzetako kalifikazioak eraikin osoa edo horren zati bat har dezake, berria izanda edo lehendik egonda ere. Aurrekoa gorabehera, horren ondorioz izaten diren etxebizitza babestu guztiak bete beharko dituzte oin berriko etxebizitzei eskatzen zaizkien baldintza tekniko guztiak.

Etxebizitza libreak eta babestuak izanen dituzten eraikinetan sustatutako etxebizitzaren kasuan, ez da aplikatzea izanen lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuaren gehieneko jasanarazpenaren betebeharra.

10. artikulua. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa.

1. 2020ko apirilaren 1etik aurrera, eta betiere ekitaldi horretan, honako hauek egiten ahalko dute emantzipaziorako errentamenduagatikoen kenkaria, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onetsi zuen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 68. artikuluko A apartatuan zehaztua dagoena: Nafarroan errodaturik egonda, eta kenkaria egin ahal izateko gainerako baldintzak betez (salbu eta adinari dagokiona), 2020ko martxoaren 14tik aurrera langabezian lan eskatzaile gisa inskribatzen direnak. Izan ere, egun horretan deklaratu zen alarma egoera COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

2. 2020ko apirilaren 1etik aurrera, eta betiere ekitaldi horretan, etxebizitza errentamenduagatikoen kenkaria egin ahal izateko, ez da beharrezkoa izanen gutxienez urtebete eramatea inskribatua etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan, eta errentamendu kontratu ikus-onetsiari dagokionez ere ez da gutxieneko epe hori eskatuko. Hala, nahikoa izanen da etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan inskribaturik egotea 2020ko martxoaren 14a baino lehenagotik, errentamenduen modalitatean edo erosteko aukera duen errentamenduen modalitatean, edo, bestela, etxebizitza babestu baten errentari izatea eta Administrazioak egun hori baino lehen ikus-onetsia izatea kontratua. Kenkari hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onetsi zuen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 68. artikuluko B.1.a) apartatuan jasota dago.

11. artikulua. Etxebizitza babestuetako errentarientzako dirulaguntzak.

1. Alokairu Poltsan sartutako etxebizitzaren edo etxebizitza babestuen errentamendu kontratuetako titularrei ematen zaizkien dirulaguntzak automatikoki berrituko dira, betiere 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 30era eskatu behar diren kasuetarako.

2. Aurrekoa gorabehera, 2020ko martxoaren 31n dirulaguntza baten onuradun ziren familia-unitateen edo pertsonen kasuan, kasu guztietan aitortuko den dirulaguntza-porzentajea errentaren % 75ekoa izanen da, 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 30era arteko aldirako.

3. Errentaren ordainketan interesik gabeko berandutze bat ematen duten enpresa errentatzaileek, baita errentariak ordaindu beharreko kopuru guztiak edo parte bat barkatzen dutenek ere, eskubidea izanen dute errentamenduagatik hilabete horiei dagokien dirulaguntza jasotzeko. Dirulaguntzak ordaintzeko eskaeran, enpresa errentatzaileek zehaztu beharko dute zein familia eta pertsona errentari izan diren berandutze edo barkatze horren onuradun.

4. Etxebizitza arloan eskudun den departamentuaren titularrari gaikuntza ematen zaio aurreko datak eta epeak aldatzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko foru agindu baten bidez.

III. TITULUA

Zerga arloko neurri bereziak

12. artikulua. Epeak etetea zerga arloan.

Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen eremuan, Hitzarmen Ekonomikoan ezarriko dagoenarekin bat, neurri hauek ezartzen dira tributuzko prozeduretako aurkezpen eta ordainketa epeei eta epeen kontaktari dagokienez:

1. 2020ko ekainaren 1era luzatzen da 2020. urteko lehen hiruhilekoko balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpenak, likidazioak edota autoliquidazioak, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edota ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kontratuko atxikipean aurkezteko eta ordaintzeko epea.

2020ko apirilaren 30era arte luzatzen da otsailari dagozkion aipatutako zerga aitortpenak, likidazioak edota autoliquidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea, baita aurkezteko epearen amaiera martxoan edo apirillean duten aitortpen informatiboak aurkezteko epea ere.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunetatik jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten horiek ez dira beharrik egonen 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak autoliquidatzera eta ordaintzera.

2. Araubide berezi erraztua eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia 2020. urtean aplikatzeari uko egiteko epea, baita ekitaldi horretan ondorioak izan beharreko uko hori errebokatzeko ere, 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.

Era berean, 2020. urtean zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatzeari uko egiteko epea, baita ekitaldi horretan ondorioak izan beharreko uko hori errebokatzeko ere, 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.

3. Zerga arloko araudian zerga zorra ordaintzeko aurreikusitako epeak, 2020ko martxoaren 14a baino lehen amaitu ez direnak, 2020ko apirilaren 30era arte luzatzen dira.

2020ko martxoaren 14tik aurrera egindako jakinarazpenei dagozkien zerga zorrak ordaintzeko epeak 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen dira, salbu eta arau orokorrak emandakoa luzeagoa denean, kasu horretan hori aplikatuko baita.

Era berean, hilabetez atzeratzen da indarra duten geroratzen 2020ko apirilaren 5eko mugaeguneko ordainketa, eta, horrenbestez, gainerako mugaegunak ere hilabetez atzeratzen dira. Ez da berandutze interesik sortuko, epe bakar batean ere ez, apirilaren 5etik maiatzaren 5era bitarte.

4. 2020ko martxoaren 14tik 2020ko apirilaren 30era bitarte bere horretan mantenduko dira tributu itzulketen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortutako bestelako ordainketen ofiziotzako konpentsazioak, eta konpentsazio horien ondoriozko premiamendu probidentziak emanen dira.

5. 4. apartatuan adierazitako epea ez da kontuan hartuko zerga prozeduren gehieneko iraupenaren ondorioetarako, baina aldi horretan Administrazioak ezinbestekoak diren tramiteak sustatu, agindu eta betetzen ahalko ditu.

Epe hori, era berean, ez da kontuan hartuko alegazioak aurkeztearen ondorioetarako, ez eta errekerimenduei erantzutearen edo errekurtsio zein erreklamazio ekonomiko administrazioak jartzearen ondorioetarako ere. Nolanahi ere, zergapekoak errekerimenduari kasu egiten badio edo alegazioak aurkezten badiu tramitea egin dela joko da.

6. 4. apartatuan aipatzen den aldia ez da kontuan hartuko Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 55. artikuluan ezarritako epeen ondorioetarako, ez eta iraungitze epeen ondorioetarako ere.

13. artikulua. Zerga arloko zorrak salbuespenez geroratzea.

1. Jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten nortasunik gabeko pertsona eta erakundeetatik 2019an eragiketen bolumena 6.010.121,24 euro baino handiagoa izan ez duten horien zerga zorrak -2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarte borondatez aurkeztu eta ordaindu beharreko aitortpen-likidazioei edo autoliquidazioei dagozkienak-, geroratzen ahalko dira, konturako ordainketarik egin gabe, bermerik eskatu gabe eta berandutze interesik sortu gabe, hori guztia artikuluko honetan xedatutakoarekin bat, eta baldin eta eskatzaileak, gerorapena emanda ere, zerga arloko betebeharrak betetzen badiu gerorapenaren indarraldi guztian.

2. Era berean, jarduera ekonomikoak egiten dituzten nortasun juridikorik gabeko pertsonen eta erakundeen zerga zorrak baldintza berberetan geroratzen ahalko dira, baldin eta 2019an 6.010.121,24 euroko eragiketa bolumena gaintuzten ez badute eta zor horiek badagozkie aurreko artikuluko 3. apartatuaren bidez borondatez ordaintzeko epea luzatu zaien jakinarazpenei.

3. Salbuespenezko geroratze hori aplikatzen ahalko zaie Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 48.3 artikuluko b) eta d) letretan adierazitako zerga zorrorei ere (erregelamendu hori uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena).

4. Artikuluko honetan aipatzen diren zor geroratuen ordainketa hiru hilabetez etengo da, aitortpenaren eta ordainketaren borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretatik aurrera, zatikatuta ordainduko dira, zenbateko bereko hileko lau kuotatan.

5. Geroratze horien eskaera geroratze eredu ofiziala erabiliz eginen da, soilik Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez aurkezten ahalko delarik, eta Diru-bilketa Zerbitzuko titularrak ebatziko du.

6. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita seigarren xedapen gehigarriko 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira inola ere zenbatuko xedapen honen babesean emandako geroratzeak, ez horiek emateko ezta etorkizuneko geroratzeak emateko ere.

Lehen xedapen gehigarria.-Aldatzea 253/2019 Foru Dekretua, urriaren 16koa, Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituena.

Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituen

urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuaren azken xedapenetako bigarrena aldatzen da; hartara, testu hau izanen du:

“Azken xedapenetako bigarrena.—Indarra hartzea. Foru dekretu hau indarrean sartuko da bi hilabeteren buruan, zenbatzen hasita COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratuaren duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak indarra galtzen duenetik, edo, bestela, haren luzapenek.”

Bigarren xedapen gehigarria.—Aldatzea Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako.

26. zenbakia aldatzen da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bateginaren 35.I.B) artikuluan (apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina); hartara, testu hau izanen du:

“26. Mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan nobazioak egiten direnean Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurri buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean, bai eta COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri berezietan buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren babesean ere, horiek formalizatzeko eskritura publikoak salbuesirik egonen dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik.”

Xedapen indargabetzaile bakarra.—Indargabetzen diren xedapenak.

1. Ondorioak 2020ko apirilaren 1etik aurrera hasita, hogeita zazpigarren xedapen iragankorra indargabetzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia).

2. Lehen xedapen gehigarria indargabetzen da Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuan.

Azken xedapenetako lehena.—Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena.—Erregelamendu bidez garatzea eta betearaztea.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen eremuan, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako hirugarrena.—Indarra hartzea eta indarraldia.

1. Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, eta indarrean egonen da Nafarroako Gobernuak ezartzen duen bitartean badirauela hura onestea ekarri duen egoera bereziak, foru lege-dekretu honen 8., 9. eta 11.3 artikuluetan xedatutakoa izan ezik. Halaber, foru lege-dekretu honetan onetsitako neurrien artean iraunaldi zehatza dutenek hura beteko dute.

2. Foru Lege-dekretu honen 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren neurriek izanen dituzte ondorioak 2020ko martxoaren 15etik aurrera.

Iruñean, 2020ko martxoaren 25ean.—Nafarroako Gobernuko lehen-dakaria, María Chivite Navascués.—Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía.

F2004229

1.1.3. Foru Aginduak

16/2020 FORU AGINDUA, otsailaren 12koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abuztuaren 14ko 140/2009 Foru Agindua aldatzen duena (foru agindu horrek Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren autolikidaziorako 576 erudia eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziko zerga onurak eskatzeko 05 erudia onetsi, eta horiek Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen zituen).

Informatikaren eremuan gertatu diren aurrerapen teknologikoei esker, Nafarroako Foru Ogasunak eskaintzen ahal die zergapekoei beren bete-behar formalak errazago egiteko modua. Hala, azken urteetan hartu diren neurriekin, betebeharrak bitarteko telematikoen bidez betetzea erraza, sinplea eta segurua da.

Tributazioaren alderdi juridikoan sartzten den berrikuntza honek bateragarria izan behar du administrazioak tributazio zuzena kontrolatzeko betebeharrarekin, eta zerga iruzurra egitearen aldeko jokabideak saihestu eta borrokatzearekin.

Gogoratu behar da zerga-irudi guztiak osatzen dutela tributazio sistema, eta honen ezaugarria, sistema denez, elkarren artean harremana duten elementu multzo bat izatea dela; hartara, elementu hauek modu koordinatuan erabiltzen ahal eta erabili behar dira jokabide iruzurtiak atzemateko.

Horrela, zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziak lotura estua dauka Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin, bi arrazoiengatik: lehena, ordezkatzeko delako BEZaren lehen araudian luxuzko zenbait ondasunen kontsumoa zergapetzen zuen tipo gehitua, indargabetu dena; eta bigarrena, garrantzi handiko sektore ekonomiko baten jarduerara, ibilgailuen sal-erosketena, alegia, zergapetzen duen zerga delako.

Hori horrela, garraiobideak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan erostea, gehien-gehienetan erabilitako ibilgailuak balira bezala, gero Espainian merkaturatzeko, balio Erantsiaren gaineko Zergaren arabide orokorraren arabera zuzen ordaintzeari itzuri eginez, horixe da zerga administrazioak arreta bereziaz zaindu behar duen jardueretako bat. Helburua bikoitza da: alde batetik, zergaren diru-sarrerak zaindu nahi dira, eta beste alde batetik sektoreko konkurrentziaren arauak normaltasunez funtzionatzea nahi da, zergak gaizki ordaintzeagatik zerga-oinarri eta prezioak ez daitezke izan ibilgailu hauen merkaturatzen ahalikoa dena baino askoz ere baxuagoak.

Ibilgailu tipologia honen merkaturatze prozesuan, matrikulazio-egintza, horixe baita Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren funtsa, une egokia da zerga administrazioak egiazta dezan zein den zergapekoaren egiazko enpresa jarduna.

Horretarako, bosgarren atala gehitu da 140/2009 Foru Aginduaren 5. artikuluan. Atal horrek ezartzen du Nafarroako Foru Ogasunak eskatzen ahaliko liokeela zergapekoari bere jardueraren izatea, helbidea, edo jarduerara aurrera eramateko baliabide material, giza-baliabide edo baliabide finantzario frogatzen, aitortzailearen jarduerara justifikatzeko; aldi berean, atalak biltzen du, baita ere, ze ondorio ekarriko duen dokumentazio-eskaerei kasurik ez egiteak, edo aitortzailearen jarduerara justifikatuta ez gelditzeak.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren zazpigarren xedapen gehigarrian baimena ematen zaio zerga arloko eskumena duen departamentuko kontseilariari foru agindu bidez arautu dezan zergadunek eta entitateek zein kasu eta baldintzatan aurkezten ahal dituzten baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen bitartez aitortpenak, jakinarazpenak, aitortpen-likidazioak, autolikidazioak edo tributuen arloko araudiak eskatutako beste agiri guztiak.

Horrenbestez,

AGINTZEN DUT:

Artikulu bakarra.—Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abuztuaren 14ko 140/2009 Foru Aginduaren 5. artikuluari bosgarren atal bat gehitzea. Foru agindu horren bidez, onesten dira Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren autolikidaziorako 576 erudia eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziko zerga onurak eskatzeko 05 erudia, eta horiek Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen baititu.

“Bosgarrena.—Dokumentazioa aurkeztea.

1. Ibilgailua matrikulatu aurretik, Nafarroako Foru Ogasunak eskatzen ahaliko du aitortzailearen jarduerara justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea.

Bereziki, Nafarroako Foru Ogasunak eskatzen ahaliko du txosten xehatu bat aurkezteko, zeinean frogatu behar baita enpresak baduela matrikulazioa justifikarazten duten eragiketarik egiteko nahikoa enpresa-gaitasun. Txosten horri gehituko zaizkio edukia egiazkoa dela egiaztatzen duten frogabide guztiak.

2. Nafarroako Foru Ogasunak matrikulazioari ezetz esaten ahaliko dio kasu hauetan:

a) Zergapekoak ez dituzten betetzen, hilabeteko epean, Nafarroako Foru Ogasunak, 1. zenbakian ezarritakoarekin bat, egin dizkion errekerimenduak.

b) Behar diren egiaztapenak egin eta gero, Nafarroako Foru Ogasunak atzematen badu aitortzailearen jardueraren izatea aski justifikatuta ez dagoela, edo jarduerara aurrera eramateko baliabide material, giza baliabide edo baliabide finantzarioak ez daudela justifikatuta, eta, batez ere, justifikatzen ez denean aitortutako xede soziala erreala dela eta esandako helbidean garatzen dela.”

AZKEN XEDAPENA

Indarra hartzea

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bisharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2020ko otsailaren 12an.—Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Elma Saiz Delgado.

F2002226

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

49/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 16koa, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, abenduaren 18ko 196/2019 Foru Agindua aldatzen duena Barne Zuzendaritza Nagusiari dagokion atalean.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 16.2 artikulua ezartzen du departamentuaren titularrak foru agindu baten bidez izendatuko dituela zuzendaritza nagusien eta idazkaritza tekniko nagusiaren titularren ordez aldi baterako arituko direnak, baita zuzenean horien menpe dauden beste organo batzuen titularrak ordez aldi baterako arituko direnak ere, titularrak kanpoan daudenean, eritasun edo ezintasunen bat dutenean, karguak hutsik daudenean edo abstenitzea edo errekusatzeko deklaratzeko den kasuetan.

Eskaerak horretaz baliatuz, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren abenduaren 18ko 196/2019 Foru Aginduaren bidez ezarri ziren, besteak beste, Barne Zuzendaritza Nagusiaren titularraren ordezkoak.

COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortutako egoera ezohikoak eta, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu izanak krisiari erantzuteko lehen larri jarri dituzte Barne Zuzendaritza Nagusiaren menpeko larrialdi eta segurtasun zerbitzuak; hori dela eta, justifikaturik dago aldatzea foru agindu horretan ezarritako ordezkapen ordena.

Agindu horren 6. apartatuaren arabera, ordezkoen izendapena baliozkoa izateko, ez da derrigorrezkoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, salbu eta baldintza hori ezarrita duten kasuetan. Kontuan harturik zein den aldaketa eragin duen egoera, foru agindu honen edukia sinatzen den unetik aurrera izanen ditu ondorioak, horrek ukatu gabe Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, orok jakin dezan.

Horrenbestez, aipatutako lege horrekin bat,
 AGINTZEN DUT:

1. Aldatzea Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren abenduaren 18ko 196/2019 Foru Agindua, departamentuko zuzendari nagusien eta idazkari tekniko nagusiaren ordezkoak ezarri zituen, 3. apartatuari dagokionez, testu hau izan dezan:

“Kargu hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo eri denean edo ezintasun pertsonalen bat duenean, Barneko zuzendari nagusiaren ordez haren mendeko zerbitzuaren zuzendaritzen edo hari atxikitako edo haren menpeko beste erakunde batzuen titularrak arituko dira aldi baterako, hurrenkera honetan:

- Barneko Araubide Juridikoaren Zerbitzua.
- Foruzaingoko burutza.
- Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua.
- Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzua.
- Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua.”

2. Izendapen honek ondorioak izanen ditu alarma egoeraren egungo deklarazioak edo haren luzapenek indarra duten bitartean.

3. Foru agindu hau interesdunei eta departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

4. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko martxoaren 16an.—Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remirez Apesteguiá.

F2004054

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

421/2020 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 16ko 331E/2019 Foru Agindua gauzatzen duena.

Inmaculada Gutiérrez García andreak hartu zuen parte, maisu-maistren kidegoan sartzeko txanda irekiko hautapen prozedura batean, Haur-Hezkuntza gaztelaniaz eta Haur-Hezkuntza euskaraz espezialitateetan, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 4ko 1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsitako horretan. Ebazpen hori aldatu zen urtarrilaren 22ko 260/2019 Ebazpenaren bitartez.

Hautapen prozesuan, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren bidez onetsi zen maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren lehiaketaldiko merezimenduen behin betiko balorazioa. Inmaculada Gutiérrez García andreak, 2019ko uztailaren 26an, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren aurka.

Oposizio-lehiaketaldia bukatu ondoren, Inmaculada Gutiérrez García andreak Haur-Hezkuntza euskaraz espezialitateko praktiketako funtzionario izendatu zuten, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren abuztuaren 30eko 3042/2019 Ebazpenaren bidez.

Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 16ko 331E/2019 Foru Aginduaren bidez, gora jotzeko errekurtsio bat baietsi zen, Inmaculada Gutiérrez García andreak jarritakoa Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren lehiaketaldiko merezimenduen behin betiko balorazioa.

Foru agindu horrek Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuari agintzen dio Inmaculada Gutiérrez García andrearekin loturiko jarduketak atzera eramateko, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 26ko 2370/2019 Ebazpena argitaratu zeneko momentura arte eramanean (ebazpen horren bidez onetsi zen merezimenduen behin-behineko balorazioa). Halaber, ebazpen horrek agintzen duenaren arabera, interesdunari eskatu behar zaio “alegatutako titularen ikasketa-espeditzea” zuzentzeko aipatu ebazpenaren ezarritako epean, merezimendua baloratzearen, kasua bada.

Aurrekoaren ondorioz, zuzenketak egiteko ofizioa jakinarazi zitzaion Inmaculada Gutiérrez García andreari 2020ko urtarrilaren 16an, eta 10 egun balioduneko epea eman zitzaion betetzeko.

Inmaculada Gutiérrez García andreak zuzenketak egiteko idazkia aurkeztu zuen 2020ko urtarrilaren 17an. Ikasketa-espeditzea jasotzen da bertan. Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari igorri zitzaion espeditzea, eta horrek 1,2500 puntu eman zizkion ikasketa-espeditzearengatik. Horrenbestez, errekurtsioak lehiaketaldian lorturiko amaierako puntuazioa hau da:

Haur-Hezkuntza euskaraz

Puntuazioa, guztira: 8,9748 puntu (I. atala, “Irakasle lanetan izaniko esperientzia”: 6,7248 puntu. II. atala, “Prestakuntza akademikoa”: 1,2500 puntu. III. atala, “Beste merezimendu batzuk”: 1,000 puntu).

Deialdian ezarritakoarekin bat, puntuazio horrekin gehi oposizioaldian lorturikoarekin (8,2675 puntu), puntuazio bateratua hau izanen da: 8,5504 puntu.

Horiek horrela, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 208/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetutako ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Inmaculada Gutiérrez García andreari 1,2500 puntu esleitzea Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 4ko 1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsitako hautapen prozesuko merezimenduen baremoko 2.1 atalean (Alegatutako titularen ikasketa-espeditzea), Haur-Hezkuntza euskaraz espezialitatean.

2. Oposizio-lehiaketan, amaierako puntuazio hau ematea Inmaculada Gutiérrez García andreari Haur Hezkuntza euskaraz espezialitatean: 8,5504 puntu.

3. Ebazpen hau igortzea Idazkaritza Tekniko Nagusira, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzura, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzura eta interesdunari, behar diren ondorioak izan ditzan.

4. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, adieraziz ebazpen honek ez duela administrazio bidea agortzen eta haren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztzen ahalko dela hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2020ko otsailaren 21ean.—Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria, Javier Lacarra Albizu.

F2002933

501/2020 EBAZPENA, otsailaren 27koa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 17ko 4E/2020 Foru Agindua gauzatzen duena.

Iranzu Echavarri Bengoetxea andreak parte hartu zuen Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 4ko 1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsitako txanda irekiko hautapen prozeduran, maisu-maistren kidegoan Lehen Hezkuntza (gaztelania) eta Atzerriko Hizkuntza-Ingelesa (gaztelania) espezialitateetan.

Hautapen prozesuan, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren bidez onetsi zen lehiaketaldiko merezimenduen balorazioa, behin betikoa. Iranzu Echavari Bengoetxea andreak, 2019ko abuztuaren 9an, gora jotzeko errekursoa aurkeztu zuen uztailaren 24ko 2475/2019 Ebazpenaren aurka.

Oposizio-lehiaketaldia bukatu ondoren, Iranzu Echavari Bengoetxea andrea Atzerriko hizkuntza-ingelesa (gaztelania) espezialitateko praktiketako funtzionario izendatu zuten, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren abuztuaren 30eko 3042/2019 Ebazpenaren bidez.

Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 17ko 4E/2020 Foru Aginduen bidez, gora jotzeko errekurso bat baietsi zen, Iranzu Echavari Bengoetxea andreak jarritakoa Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren lehiaketaldiko merezimenduen behin betiko balorazioa.

Foru agindu horrek agintzen dio Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuari Iranzu Echavari Bengoetxea andreaki 0,750 puntu esleitzeko merezimenduen baremoko 3.2.2 atalean (euskarra, ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea frogatzen duten titulazioak: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, euskararen, ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren C1 maila egiaztatzen duen ziurtagiria, Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 28ko 30/2011 Foru Aginduan ezarri direnetako bat. Esleipen hori eginda, errekurtsogileak lehiaketaldian lorturiko amaierako puntuazioa hau da:

Atzerriko Hizkuntza-Ingelesa (gaztelania):

Puntuazioa, guztira: 5,1041 (I. atala, "Irakasle lanetan izaniko esperientzia": 1,1041. II. atala, "Prestakuntza akademikoa": 2,2500 puntu. III. atala, "Beste merezimendu batzuk": 1,750 puntu (3.1 azpiatala: 1,000 puntu. 3.2 azpiatala: 0,750 puntu).

Puntuazio berri honi oposizioaldian lortu zuena (6,8450 puntu) gehituta, deialdian ezarritakoarekin bat honako puntuazio bateratu hau izanen da: 6,1486 puntu. Horrek ez du aldatzen Iranzu Echavari Bengoetxea andreak hautapen prozesuan duen tokia.

Horiek horrela, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 208/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetutako ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Iranzu Echavari Bengoetxea andreaki 0,750 puntu esleitzeko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 4ko 1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsitako hautapen prozesuko merezimenduen baremoko 3.2.2 atalean, Atzerriko hizkuntza-ingelesa (gaztelania) espezialitatean (Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, euskararen, ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren C1 maila egiaztatzen duen ziurtagiria, Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 28ko 30/2011 Foru Aginduan ezarri direnetako bat).

2. Iranzu Echavari Bengoetxea andreaki 6,1486 puntu ematea oposizio-lehiaketako amaierako puntuazio gisa; horrek ez du aldatzen hautapen prozesuan, Atzerriko hizkuntza-ingelesa (gaztelania) espezialitatean, duen tokia.

3. Ebazpen hau igortzea Idazkaritza Tekniko Nagusiari, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuari, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari, Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzuari, Azterlan Ekonomikoen eta Nominen Zerbitzuari eta interesdunari, behar diren ondorioak izan ditzan.

4. Ebazpen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Hezkuntza Departamentuko iragarki-taulan eta web-orrian (<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/inicio>), eta adieraztea ebazpen honek ez duela administrazio bidea amaitzen eta haren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahalko dela hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2020ko otsailaren 27an.—Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria, Javier Lacarra Albizu.

F2003577

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

202/2020 EBAZPENEA, martxoaren 3koa, Osasuneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez deialdia onesten baita 2020. urteko urtariletik azarora bitarteko osasun programetarako dirulaguntzak emateko toki entitateei, fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko elkartei. DDBN identifikazioa: 499374.

Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen araubide juridiko orokorra Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005

Foru Legean dago ezarria. Arau honek xedatzen du ezen, dirulaguntzak eman baino lehen, organo eskudunak oinarri arautzaileak ezarriko dituela, eta horiek argitaratu beharko direla, dirulaguntza jasotzeko moduan daudenean eskuratzeko aukera izan dezaten.

Aipatu 11/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat, dirulaguntzetarako deialdi honen xedea da toki entitateek, fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek berariazko ekintzak egitea, autolaguntza taldeak eratzea eta haien funtzionamendua sustatzen badute; orobat, herritarren partaidetzarekin, entitate horiek osasuna prebenitu, sustatu eta mantentzeko programak garatzen dituzten ekintzak, Osasun Departamentuak osasun arloko politikaren esparru orokorrean sustatzen dituen irizpideekin bat. Bereziki, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak bizimodu osasungarriez emandako gomendioekin bat datozenean eta haien xedea denean honako hautetan zehaztutako helburuak betetzea: 2014-2020ko Osasun Plana, Osasun Publikoaren Plana (2016-2020), Drogei eta Adikzioei buruzko III. Prebentzio Plana, Paziente Kronikoei eta Pluripatologikoei Arreta Integratua emateko Nafarroako Estrategia eta Zahartzaro Aktibo eta Osasungarria Estrategia.

Espedienteko txosten tekniko eta juridikoei adierazten dute, hurrenez hurren, dirulaguntzen deialdia egokia eta interes publikokoa dela, eta deialdia eta oinarri arautzaileak legearen arabekoak direla.

Adierazitakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1 artikulua eta Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 269/2019 Foru Dekretuaren 8.v) artikulua ematen dizkidaten eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Toki entitateei, fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko elkartei 2020. urteko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitarteko osasun programetarako dirulaguntzak emateko deialdia onestea, ebazpen honen 1., 2. eta 3. eranskinetan sartu diren oinarri arautzaileekin bat.

2. Guztira 2.069.661 euroko gastua baimentzea, 2020ra luzatutako 2019ko gastuen oraingo aurrekontuko partida hauen kargura (edo 2020ko aurrekontuetan zehazten den zenbatekoa, kasua bada):

–511004-51120-4819-311100 "Paziente eta familiarren elkarteentzako dirulaguntzak". Aurreikusitako esleipena: 400.000 euro.

–511004-51120-4819-311104 "Programa komunitarioetarako dirulaguntzak GIB-HIESarengatik infekzioari loturik". Aurreikusitako esleipena: 129.906 euro.

–520001-51200-4609-313900 "Osasunaren sustapen eta prebentzio programa komunitarioetarako dirulaguntzak". Aurreikusitako esleipena: 184.130 euro.

–520001-51200-4609-313902 "Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzak". Aurreikusitako esleipena: 632.625 euro.

–520001-51200-4819-313902 "Entitateentzako dirulaguntzak adikzio substantziadunak eta substantzia gabeak komunitatean prebenitzeko". Aurreikusitako esleipena: 263.000 euro.

–520001-51200-4609-313906, "Zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko programa komunitarioak". Aurreikusitako esleipena: 70.000 euro.

–520001-51200-4819-313900 "Sustapen eta Heziketa afektibo-sexual komunitarioetarako dirulaguntzak". Aurreikusitako esleipena: 160.000 euro.

–520001-51200-4819-313903 "Ijitoengan osasuna sustatzeko programetarako dirulaguntzak". Aurreikusitako esleipena: 230.000 euro.

3. Ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela agintzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 3an.—Osasuneko zuzendari nagusia, Luis Gabilondo Pujol.

1. ERANSKINA

Toki entitateei, fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko elkartei 2020. urtean osasun programetarako dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarri arautzaileak

1. Dirulaguntzaren xedea.

Deialdi honen xedea da toki entitateei, fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko elkartei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea, autolaguntza taldeak era daitezen eta programak eta jarduerak egin daitezzen 2020. urteko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean, osasuna prebenitu, sustatu eta mantentzeko buruz eta zahartzaro aktibo eta osasungarriaren gaineko jarduketari buruz, esparru hauetan:

–"Paziente eta familiarren elkarteentzako dirulaguntzak": osasun arazoez jotakoen edo haien familiarren elkarteentzako proiektuak, osasun arazoak edo horien ondorioak hobetzera zuzendutako, GIB-HIES salbu; arreta berezia ematen zaie 2014-2020ko Osasun Planean eta Paziente

Kronikoei eta Pluripatologikoei Arreta Emateko Nafarroako Estrategian jasotako prestakuntza eta/edo autolaguntzako programei.

–“Programa komunitarioetarako dirulaguntzak, GIB-HIESaren infekzioari loturik”: elkarte edo fundazioek GIB-HIESaren infekzioari loturik egiten dituzten programa komunitarioetarako, arreta berezia emanez berriazko prebentzio ekintzei.

–“Osasunaren prebentzio eta sustapeneko programa komunitarioetarako dirulaguntzak”: elkarteek, fundazioek edo toki entitateek eskualdeko zerbitzu eta baliabideekin batera egiten dituzten programetarako, taldeen eta komunitatearen osasuna prebenitu eta sustatzeko, zahartzaro aktibo eta osasungarriari eta adikzioen eta GIB-HIESaren prebentzioari loturikoak kanpo; zein bere berriazko lerroaren kargura izanen da.

–“Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzak”: udalek eta/edo mankomunitateek egiten dituzten programak, komunitatea adikzio substantziadunen eta substantzia gabekoen ondorioez prebenitzeko.

–“Entitateentzako dirulaguntzak adikzioak komunitatean prebenitzeko”: gobernuz kanpoko erakundeek eta antzekoek egiten dituzten programak, komunitatea adikzio substantziadunen eta substantzia gabekoen ondorioez prebenitzeko.

–“Zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko programa komunitarioak”: elkarteek, fundazioek edo toki entitateek egiten dituzten programetarako, zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko programa komunitarioak garatzeko.

–“Sustapen eta heziketa afektibo-sexual komunitarioetarako dirulaguntzak”: elkarteek, fundazioek edo toki entitateek sexu- eta ugalketa-osasuna sustatzeko egiten dituzten programa komunitarioak garatzeko.

–“Ijitoengan osasuna sustatzeko programetarako dirulaguntza”: elkarteek, fundazioek edo toki entitateek egiten dituzten programetarako, ijitoen gutxiengo etnikoaren osasun heziketarako eta bitartekaritarako.

2. Entitate onuradunen betebeharrak.

Toki entitateak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak izaten ahalko dira deialdi honen bidez ezartzen diren dirulaguntzen onuradunak, Nafarroako Foru Komunitateko elkartearen erregistroetan inskribaturik badaude eta autolaguntza taldeak eratzen badituzte, edo deialdiaren epean egiten badituzte osasunaren prebentzio, sustapen eta mantentze ekintza edo programak edo zahartzaro aktibo eta osasungarriari lotutakoak, Osasun Departamentuak zehazturiko lehentasunekin bat datozenak.

Paziente eta familiarren elkarreentzako dirulaguntzak Nafarroako Foru Komunitatean pazienteei eta beren familiei arreta ematen dieten elkarreentzat bakarrik izanen dira.

Entitate publikoenak ez diren eskaeretan, entitate eskatzaileek zerga betebeharrak eguneratuta izan beharko dituzte, bai Gizarte Segurantzari dagozkionak, bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo haren erakunde autonomoek itzuli beharreko zorrei dagozkienak, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena egiten den egunean.

Entitate eskatzaileek ezin izanen dute urratu dirulaguntzen onuradun izatek baztertzeko gainerako debekuak, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 13. artikulua eta 2. eta 3. apartatuak ezarritakoak.

Baldintza horiek guztiak diruz laguntzen den jarduerak irauten duen denbora osoan bete beharko dira.

3. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak, jaso ez dezaketenak eta laguntzen zenbatekoak.

3.1. Gastu diruz lagungarriak:

a) Jardueren, material suitsigarriaren eta entitate onuradunaren langileen gastuak, aurkezturiko proiektu edo programari lotuak.

Lokalen alokairua eta funtzionamendu gastuak jardueraren gastutzat hartzeko, lokala alokatzearen helburu bakarrak izan behar du jarduera egitea.

b) Entitatearen funtzionamenduko gastu orokorrak (langileria, lokalen mantentze-lana, bulegoko gastua eta abar) dirulaguntzari egozten ahalko zaizkio, gehienez ere justifikatu beharreko kantitatearen % 25era bitarte.

Salbuespenak:

a) GIB-HIESaren infekzioari, ijitoen osasuna sustatzeari eta sustapen eta heziketa afektibo-sexual komunitarioari buruzko programa komunitarioei loturiko jarduketetarako programetan ez du indarrik izanen funtzionamendu gastuetarako % 25eko mugak; betiere, ziurtasun osoz frogatu beharko da dirulaguntzaren xedeko proiektuari loturik daudela.

b) “Entitateentzako dirulaguntzak komunitatean adikzioak prebenitzeko” lerroaren kargura ematen diren dirulaguntzetan, ebazpenean zehaztuko da zenbat diru erabiltzen ahalko den alokairuak ordaintzeko, elkarteek eta erakundeek lokal bat behar dutenean dirulaguntzaren xedeko jarduera burutzeko.

c) “Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzetan”, langileen gasturako ematen ahal den laguntza ez da inoiz udal entitateek egindakoa baino handiagoa izanen.

Finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario eta erregistro gastuak, diruz lagundutako proiektua egiteko peritu gastuak, berriazko administrazio gastuak eta banku bermearen gastuak, horiek guztiak gastu diruz lagungarritzat joko dira, baldin eta zuzeneko lotura badute dirulaguntzaren xedeko jarduerarekin eta ezinbestekoak badira hura behar bezala prestatu nahiz burutzeko. Bankuetako kontuen zor interesentzat ez da inoiz dirulaguntzarik emanen.

3.2. Diruz lagungarriak ez diren gastuak:

Gastu hauek ez dute dirulaguntzarik izanen:

a) Gastu inbentariagarriak (hots, produktu bakar batean 500 eurotik gora egindako gastuak).

b) Zerbitzu publikoek egiten dituzten jarduerak, toki entitateek egindakoak salbu.

c) Inbertsioak.

d) Entitatearen edo elkartearen publizitateari edo sustapenari lotutako gastuak.

e) Aurreikusitako jarduerak betetzeari lotu gabeko helburua duten bidaiak.

f) Instrukzio unitatearen ustez, programan sartutako jardueren garapenari loturik ez dagoen prestakuntza.

g) Deialdi honen 2. eranskinean ezarritako moduluak gainditzen dituzten kopuru unitarioak. Eranskin horretan jaso gabeko kasuetarako, ez zaie dirulaguntzarik emanen Foru Komunitateko Administrazioan indarra duten tarifen gaineko jarduera kostuei.

h) Gaixotasunei buruzko sentsibilizazio eta informazio jarduerak, herritar guztientzat direnak.

i) Inprimatutako materiala. Salbuespenez bakarrik emanen da dirulaguntza inprimatutako materialeetarako; hala egingen da baldin eta ebaluzioa egiten duen unitatearen iritziz ezinbestekoa bada programaren helburua lortzeko.

j) “Paziente eta familiarren elkarreentzako dirulaguntzak” lerroan, podologiak, odontologiak eta ebidentzia zientifikoak bermatu gabeko jarduerak ez dute dirulaguntzarik izanen. Jardunaldi, biltzar eta kanpaldietan agertze hutsak ere ez du dirulaguntzarik izanen.

k) “Adikzioen prebentzioarako udal planetarako dirulaguntzak” lerroan, ez zaie dirulaguntzarik emanen droga-mendekotasunen tratamendua osatzen duten laguntzei, toki eremuko dirulaguntzei eta hirugarrenentzako dirulaguntzetat hartzen ahal diren transferentziei.

l) “Osasunaren prebentzio eta sustapen programa komunitarioetarako dirulaguntzak” lerroan, ez zaie dirulaguntzarik emanen elkarteak langileen gastuei.

m) Ikasleekin ikasgeletan egiten diren jarduerak ere ez zaie dirulaguntzarik emanen.

3.3. Aurrekontua.

2.069.661 eurokoa da deialdi hau garatzeko aurreikusitako gehieneko aurrekontua, 2020ra luzatutako 2019ko gastuen oraingo aurrekontuko partida hauen kargura (edo, kasua bada, 2020ko aurrekontuetan zehazten den zenbatekoa):

–511004-51120-4819-311100 “Paziente eta familiarren elkarreentzako dirulaguntzak”. Aurreikusitako esleipena: 400.000 euro.

–511004-51120-4819-311104 “Programa komunitarioetarako dirulaguntzak GIB-HIESarengatik infekzioari loturik”. Aurreikusitako esleipena: 129.906 euro.

–520001-51200-4609-313900 “Osasunaren sustapen eta prebentzio programa komunitarioetarako dirulaguntzak”. Aurreikusitako esleipena: 184.130 euro.

–520001-51200-4609-313902 “Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzak”. Aurreikusitako esleipena: 632.625 euro.

–520001-51200-4819-313902 “Entitateentzako dirulaguntzak adikzio substantziadunen eta substantzia gabek komunitatean prebenitzeko”. Aurreikusitako esleipena: 263.000 euro.

–520001-51200-4609-313906, “Zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko programa komunitarioak”. Aurreikusitako esleipena: 70.000 euro.

–520001-51200-4819-313900 “Sustapen eta Heziketa afektibo-sexual komunitarioetarako dirulaguntzak”. Aurreikusitako esleipena: 160.000 euro.

–520001-51200-4819-313903 “Ijitoengan osasuna sustatzeko programetarako dirulaguntzak”. Aurreikusitako esleipena: 230.000 euro.

Aurkeztutako eskaerak baloratu ondoren, partida bakoitzeko gerakina, halakorik badago, lehenago aipatutakoekin lotuta dagoen beste edozeinen kreditua handitzeko erabil daiteke.

4. Eskabideak.

4.1. Noiz eta non aurkeztu.

4.1.1. Eskaerak aurkezteko, hogeii egun naturaleko epea izanen da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.1.2. Dirulaguntzarako eskaerak, ahal dela, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikokoan aurkeztuko dira, www.nafarroa.eus orrian sartuta (sinadura elektronikoa behar da), edo, bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako tokietako edozeinetan.

Eskabidea aurrez aurre aurkeztu nahi izanez gero, edo aurkezpen elektronikoa buruzko laguntza beharko balitz, hemen egingen da, ahal dela:

–Osasun Departamentuko Erregistroan (Tutera kalea 20, Iruñea), honako hauei dagozkien dirulaguntza eskaerak:

- “Paziente eta familiarren elkarteentzako dirulaguntzak”.
- –“GIB-HIESaren infekzioari loturiko programa komunitarioetarako dirulaguntzak”.

–Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Erregistroan (Leire kalea 15, Iruñea), honako hauei dagozkien dirulaguntza eskaerak:

- “Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzak”.
- “Entitateentzako dirulaguntzak adikzioak komunitatean prebenitzeko”.
- “Osasunaren sustapen eta prebentzio programa komunitarioetarako dirulaguntzak”.
- “Ljitoengan osasuna sustatzeko programetarako dirulaguntzak”.
- “Sustapen eta heziketa afektibo-sexual komunitarioetarako dirulaguntzak”.
- “Zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko programa komunitarioak”.

Postetxeetan aurkezten diren eskaerei dagokienez, gutun-azal ireki batean aurkeztuko dira, lehen orrialdearen idazpuruan adieraz daitezkeen bulegoaren izena, data eta tokia. Datu horiek eskaera igorri dela frogatzen duen gordekinean ere adierazi beharko dira.

4.1.3. Eskaerak adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

4.1.4. Dirulaguntza eskatzeak berarekin dakar deialdi hau arautzen duten oinarriak onartzea.

4.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

a) Dirulaguntza eskatzeko inprimaki ofiziala, behar bezala bete, egin beharreko proiektuaren, ekintzaren eta programaren atal tekniko eta ekonomikoak egoki arrazoituz. Toki hauean lor daiteke inprimaki ofiziala: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan (Amaia kalea 2 A, 3. solairua, 31002 Iruñea) edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan (Leire kalea 15, 31003 Iruñea); edo Nafarroako Gobernuaren webgune ofizialetik (www.nafarroa.eus) deskargatu daiteke.

b) Dirulaguntza eskatzen duenaren ordezkariak frogatzen duen dokumentua (eskabidearen inprimaki ofizialean ageri dena) eta pertsona horren nortasun agiri nazionalaren fotokopia.

c) Entitate eskatzailea Nafarroako Foru Komunitateko elkartearen erregistro batean inskribatua bada, hura zein den.

d) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, entitatearen ordezkariak egina, dioena entitateak, haren administratzaileek eta ordezkariak “dirulaguntzen onuradun” izateko debekurik urratzen ez dutela. Debeku horiek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ageri dira. Aitorpen hori dirulaguntzaren eskabideari erantsi zaion ereduaren arabera egin daiteke.

f) Transferentzia bidez ordaintzeko eskabide-orrria, behar bezala bete.

g) Dirulaguntzaren aurrerakin eskatuz gero, deialdiaren 11.1 oinarrian xedaturikoarekin bat, entitate eskatzaileak dokumentazioa aurkeztu beharko du, dirulaguntzaren helburuak betetzeko funtsak aldez aurretik behar direla frogatzen duena, oinarri horretan ezarritakoaren arabera.

h) Entitatearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, helburu bererako beste dirulaguntzarik eskatu edo jaso ote duen adierazten duena. Adierazpen hori dirulaguntzaren eskabideari erantsi zaion ereduaren arabera egin daiteke.

Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 13.8 artikuluan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 28. artikuluan xedaturikoarekin bat, ez dago b), c), d) eta f) letretan eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharrik, baldin eta horiek Foru Komunitateko Administrazioak dagoeneko dauzkan datuak badira,

betiere datu horiek ageri direneko espediente edo deialdia adierazten bada eta aurkeztu zirenez geroztik aldaketarik gertatu ez bada.

Eskaera aurkezteak berekin dakar Osasun Departamentuari baime-na ematea Ogasun Publikoan eta Estatuko Administrazio Orokorrean informazioa bildu dezan, jakiteko ea eskatzaileak bete dituen bere zerga betebeharrak, dirua itzultzekoak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Toki entitateek ez dute c), d), e) eta f) letretan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko.

Eskatzaile bakoitzak gehienez ere hiru programa aurkezten ahalko ditu deialdi honetan, toki entitateek izan ezik.

4.3. Eskaera zuzentzea.

Eskaerak adierazi diren betebeharrak bete ezean, dagokion instrukzio unitateak interesdunari eskatuko dio gehienez ere 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzala eta adieraziko dio, horrela egin ezean, haren eskaera ezetsizat joko dela. Kasu horretan espediente artxibatze eabazpena emanen da eta dagokionari jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatu bezala.

5. Prozedura instruitu eta ebazteko eskumena duten organoak.

Deialdi honen instrukzioa unitate hauei dagokie, baloratu beharreko programaren arabera:

–Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzua:

- a) Paziente eta familiarren elkarteentzako dirulaguntzak.
- b) GIB-HIESaren infekzioari loturiko programa komunitarioetarako dirulaguntzak.

–Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuen Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzua:

- c) Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzak.
- d) Entitateentzako dirulaguntzak adikzioak komunitatean prebenitzeko.
- e) Osasunaren sustapen eta prebentzio programa komunitarioetarako dirulaguntzak.
- f) Ljitoengan osasuna sustatzeko programetarako dirulaguntzak.
- g) Sustapen eta heziketa afektibo-sexual komunitarioetarako dirulaguntzak.
- h) Zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko programa komunitarioak.

Aipatu diren instrukzio unitateek egiaztatuko dute entitate eskatzaileek betetzen dituztela dirulaguntza lortzeko betebeharrak. Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuak unitate guztien instrukzioa koordinatu eta prozeduraren gainean ebazteko proposamena aurkeztuko du, Ebaluazio Batzordearen irizpenarekin bat.

6. Eskaerak ebaluatzeko kide anitzeko organoa.

Ebaluazio Batzorde bat osatuko da, kide hauek izanen dituena:

a) Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuko zuzendaria, batzordeburua izanen dena.

b) Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko 6 batzordekide, bertako zuzendari kudeatzaileak izendatu beharrekoak.

c) Eskubide Sozialerako Departamentuko kide bat, Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusiak izendatu beharrekoak.

d) Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuko kide bat, Osasuneko zuzendari nagusiak izendatu beharrekoak, Batzordeko idazkari ariko dena.

Batzordearen osara Osasun Departamentuaren web-orrian argitaratuko da, Ebaluazio Batzordea eratu baino lehen.

Ebaluazio Batzordeak eskaerak baloratu eta dirulaguntzak eman eta ukatzeko proposamena aurkeztuko du, instrukzio unitate bakoitzak emandako txostena ikusita. Unitate horiek lehenengo balorazioa egingen dute, ez loteslea, 7. oinarrian aipatzen diren irizpide eta puntuazioak erabiliz.

Ebaluazio Batzordeak proiektuak ebaluatu eta bidezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko argibide osagarriak eskatzen ahalko ditu, eta diruz lagundutako jardueraren gaineko frogagiri guztiak eskuratzen ahalko ditu.

Batzorde horren proposamena loteslea izanen da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 20.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

7. Dirulaguntzak emateko prozedura eta balorazioko arau orokorrak:

7.1. Dirulaguntza hauek emateko prozedura norgehiagokako araubideari jarraiki tramitatuko da, aurkezten diren eskaerak konparatuz,

guztiekin lehenetasun-zerrenda bat prestatzeko asmoz, 7.3 puntuan eta 3. eranskinean ezarritako balorazio-irizpideen arabera, hainbanaketa aplikatuz behar denean, aipatu 3. eranskinaren c) letran ezarritakoari jarraikiz.

7.2. Programak edo jarduerak banaka puntuatuko dira arlo bakoitzean, lortu nahi diren helburuen arabera. Arlo bakoitzari aurrekontuko partida bat dagokio, arlo hori finantzatzeko erabiliko dena, hain zuzen.

Ikusten bada proiektuak 3.2 oinarriaren arabera dirulaguntza jaso ez dezaketen gastuak dituela, edo deialdi honen eremuari ez dagozkion jarduerak dituela, horiek kendu eta berriz eginen da proiektuaren ebaluazio ekonomikoa, hura baloratu baino lehen.

7.3. Deialdiaren 3. eranskinean ezarritako irizpideen arabera baloratu dira proiektuak, dirulaguntzaren lerro bakoitzerako.

8. Entitate onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntza hartzen duten entitateek betebeharrak hauek izan behar dituzte:

a) Dirulaguntza jasotzen duen jarduerak eskaeretan eta dirulaguntza ematen duen ebazpenean adierazitako baldintzetan gauzatzea, bai eta hala egin izana frogatzea ere. 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitarte eginen dira diruz lagunduriko jarduerak, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan.

b) Osasun Departamentuari komunikatzea beste erakunde batzuek helburu eta xede bererako emaniko laguntza edo dirulaguntza guztiak, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez. Jakin bezain laster emanen da horren berri, eta, betiere, jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu baino lehen. Beste laguntzarik jaso ezean, hori ere adieraziko da justifikazio memoriarekin batera. Eskabide ofiziala eskuratzeko bide berberak erabiliz lor daitezke erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.

c) Oro har, deialdi honen kargura egiten diren ekintzetan, Nafarroako Gobernuaren logotipo ofiziala jarri beharko da, Nafarroako Gobernuaren ikur ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoarekin bat. Logotipoa erabili aurretik, dirulaguntzaren onarpena tramitatu duen instrukzio unitateari jakinarazi beharko zaio. Zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko programa komunitarioak garatzeko dirulaguntzek zahartzaro aktibo eta osasungarria sustatzeko estrategiaren logotipoa eraman beharko dute gauzatzen dituzten ekintzetan.

d) Adikzioen prebentzioari buruzko udal planetako programak garatzeko toki entitateei ematen zaizkien dirulaguntzen kasuan, langileei ordaintzeko ematen zaien diru-kopuru berbera jartzea beren funtsetatik.

e) Orobat, Dirulaguntza jasotzen duen toki entitateak behartuta egonen dira "Adikzioei buruzko udal programetako jardueren txosten teknikoa" aurkeztera eta Drogei eta Adikzioei buruzko Prebentzio Planearan proposatzen den prestakuntzan parte hartzen erraztera profesionali.

f) Jarduera burutzen ari dela, dirulaguntza eman eta haren zenbatekoa zehazteko kontuan harturiko baldintzetan gertatzen diren aldaketa guztiak instrukzio unitateari komunikatzea.

g) Orobat, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean aipatzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

9. Gardentasun betebeharrak.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunek dituzten gardentasun betebeharrak arautzen dituen irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzen onuradunek arau horietan ezartzen den dokumentazioa aurkeztu behar dute.

Entitate pribatuek osotara 20.000 eurotik gorako dirulaguntzak eskuratzeko dituztenean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen kargura urtebetean (aurrekontu-ekitaldiari lotutako urte natural gisa ulertua), edo laguntzak edo dirulaguntzak urteko haien diru-sarrera guztien % 20 gutxienez direnean (betiere laguntza edo dirulaguntza horiek gutxienez 5.000 eurokoak badira), honako informazio osagarri hau jakinarazi beharko dute:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osara.

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargu bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateek haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan dagoen informazioa emanen dute.

d) Kargudun bakoitzak gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen duen dedikazioaren araubidea.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bide telematikoak erabiliz, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio. Informazioa osatzeko epea hilabetekoa izanen da, dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazten denetik.

Informazio hori urtebetez egonen da aztergai Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzen denetik hasita, eta gehienez 15 hilabetez informazioa kudeatzen duen organoan sartzen den egunetik hasita. Epe hori iraganik, informazioa argitaratzeko ardua duen unitateak ofizioz kenduko du. Hala egin ezean, entitate onuradunak kentzeko eskatzen ahalko du, eta gehienez ere hilabeteko epean kendu beharko da, eskaera egiten denetik hasita.

Aipatutako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua konputatuko da bakarrik, ez guztizko batura.

Entitateak gardentasun betebeharrak bete behar ez badu, aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko adierazpen bat aurkeztu beharko du, dirulaguntza eman dela jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira.

Entitate onuradunak informazioa emateko betebeharrak ez betetzeak ekar ditzakeen zehapenak ukatu gabe, betetzen ez badira onartutako dirulaguntza ordaindu gabe utziko da, eta zenbatekorik kobratu bada, itzuli beharko da, eta aurrerakinak ere bai, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

10. Aldaketak.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak nola edo hala aldatuz gero, haren berri eman beharko zaio dagokion kudeaketa unitateari eta emandako laguntza aldatzeko eskatu.

Gertatzen diren gorabeherak behar adina arrazoituko dira aldaketaren eskaeretan; gertatu bezain laster formulatuko dira eta, betiere, dirulaguntzaren xedeko jardura gauzatzeko epea bukatu baino lehen; aurkezten direnetik beranduenez hilabeteko epean ebatzi beharko dira eta, bidezkoa bada, laguntza aldatuko da eta, zein den kasua, dagokion diru kopurua itzuliko.

Programa gauzatzeko diruz lagundutako gastu multzoen artean (langileak, jarduerak eta funtzionamendua) gehienez ere % 5eko desbideraketa ekonomikoa hartuko da onzat, haren osotasunari eragiten diola kontuan hartu gabe.

Gerora sortutako arrazoiengatik, entitatearekin zerikusirik izan gabe, entitateak ezin badu diruz lagundutako programetako bat egin, instrukzio entitateari jakinaraziko dio. Ordainketa aurreratua kobratu ez badu, dirulaguntza osoa edo partziala kobratzeko eskubidea galduko du. Ordainketa aurreratua jaso badu, kasuan kasuko zenbatekoa itzuli beharko da, gehi berandutze-interesak.

11. Dirulaguntzaren ordainketa.

11.1. Justifikazioaren aurreko ordainketa.

Ordainketa Osasuneko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eginen da, jardueraren justifikazio tekniko eta ekonomikoa 12. oinarrian xedatutakoaren arabera egiten denetik hilabeteko epean.

Dirulaguntzaren azken justifikazio hori, alegia, memoria teknikoa eta jarduera eta gastua gauzatu direla egiaztatzen duen memoria ekonomikoa, 2020ko abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da.

11.2. Ordainketa aurreratua.

11.2.1. Entitate onuradunek eskatuta, dirulaguntzaren xedeak beteko badira, funts likidoak behar dituztela frogatzen dutenean, alde zuretik ordaintzen ahalko da emandako dirulaguntza.

Horretarako, entitateak kontuen egoera orria aurkeztu beharko du aurreko urtearen bukaeran dirulaguntzaren eskaerarekin batera, bai eta 2020ko diru-sarrera eta gastuen mugimenduen aurreikuspena ere, edo beste edozein egiaztagiriri, dirulaguntzaren xedeak betetzeko alde zuretik funtsak behar dituela frogatzeko. Toki entitateen kasuan, ordainketa aurreratua beharrezkotzat jotzen bada, Idazkaritzak emandako ziurtagiri bat aurkeztuko da, non zehaztuko baita funtsak aurreratua behar direla programa gauzatu ahal izateko.

60.000 eurotik beherako dirulaguntza lortzen duten entitate onuradunei ordainketa bakar batean pagatuko zaie dirulaguntza, aurreraturik, Osasuneko zuzendari nagusiak emandako ebazpen baten bidez. 60.000 euroko edo hortik gorako dirulaguntzak izanez gero, dirulaguntza zatika pagatuko da. Lehen ordainketa, 30.000 eurokoa gutxienez ere, dirulaguntza ematen

duen ebazpenaren ondoren eginen da, 9. oinarrian ezarritako baldintza betetzen bada; gainerako ordainketa aurreratuak, aurrekoa justifikatu ondoren, dirulaguntza ematen duen ebazpenean ezarritako moduan eginen dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

11.2.2. Dirulaguntzaren azken justifikazioa 2020ko abenduaren 18a baino lehenago aurkeztuko da, eta 12. oinarrian xedatutakoa betez.

11.3. Konturako ordainketa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33.4 artikuluekin bat, entitate onuradunak dirulaguntzaren xedeak betetzeko funtsak aurreratu beharra frogatzen ez duen kasuan, konturako ordainketen bidez egiten ahalko da ordainketa. Osasuneko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, betiere onuradunak eskatuta eta epe horretan egindako jardueraren memoria tekniko sinplifikatua eta aipatu jardueraren ondoriozko gastuen zerrenda aurkeztu ondoren, diruz lagundutako jardueratik burutu den zatiari dagozkion gastu arrunta eta langileria gastuak ordainduko dira.

Konturako ordainketa horiek entitateak eskatu beharko ditu, betiere 2020ko urriaren 31 baino lehen, eta Osasuneko zuzendari nagusiak eskaera jasotzen denetik hilabeteko epean eman beharko duen ebazpen baten bidez eginen dira.

Dirulaguntzaren azken justifikazioa 2020ko abenduaren 18a baino lehenago aurkeztuko da, eta 12. oinarrian xedatutakoa betez.

12. Azken justifikazioen edukia.

12.1. Azken justifikaziorako, memoria tekniko bat eta memoria ekonomiko bat egin beharko dira. Hor, adierazi beharko da jarduera eta gastuak egin direla 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitarte.

12.2. Azkeneko justifikazioa, ahal dela, eredu ofizialean aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikoa; orobat, Osasun Departamentuko Erregistroan aurkezten ahalko da, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean aurreikusitako edozein baliabide erabiliz.

12.3. Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria ekonomikoari fakturen kopia erantsiko zaio. Fakturak gastuen zerrenda zenbakidun eta kontzeptuen arabera sailkatuarekin batera aurkeztuko dira, Fakturazio betebeharrak arautzeko Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuan xedaturikoari jarraituz.

Diruz lagundutako zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa denean, memoria ekonomikoari fakturen zerrenda erantsiko zaio euskarri informatikoan, eta baita kalkulu orri elektronikoa ere. Horretan, egindako gastuak jasoko dira.

Memoria ekonomikoak egin den jardueraren gastu guztia bilduko du. Langileak kontratatu badira, Gizarte Segurantzaren eta PFEZren gastuak onar daitezke 2021eko urtarrilaren 7ra arte.

12.4. Jasotako dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko, udalek memoria teknikoa aurkez dezakete, baita udaleko idazkariak sinatutako ziurtagiri bat ere, adierazten duena gastuak behar bezala aplikatu direla diruz lagundutako jarduera egiteko.

12.5. Memoriak aurkezteko epea bukatu, eta horiek diruz lagundutako jarduerarekin bat datozela egiaztatu ondoren, kudeaketa organoak espediente itxiko du, alde aurretik fiskalizazioa eginda.

13. Azpikontratazioa.

Entitate onuradunak hirugarren entitateekin azpikontratatu ahal ditu diruz lagundutako jarduerak. Diruz lagundutako zenbatekoaren % 100ekoa izan daiteke azpikontratazio hori, behar bezala justifikaturik badago. Azpikontratazioa egiteko asmoa nahitaez adierazi beharko da aurkezten diren proiektuetan, xehetasunez.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastua 12.000 eurotik gorakoa bada, entitate onuradunak frogatu beharko du enpresa hornitzailea eragimen eta ekonomia irizpideei jarraituz hautatu duela, hiru hornitzailearen aurrekontu bana aurkeztuz, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 28.3 artikuluan xedaturikoarekin bat.

Hirugarren entitate batzuekin hitzarturiko jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen duenean eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa denean, kontratu idatzia beharko da azpikontratazioa egiteko. Azpikontratazioetan, orobat, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 26. artikuluan aurreikusitako gainerako betebeharrak bete beharko dira.

Entitate kontratatuek entitate onuradunaren aurrean erantzun beharko dute, bakar-bakarrik. Administrazioaren aurrean, aldiz, onuradunak du diruz lagundutako jarduera gauzatzearan erantzukizun osoa.

Gastu bat kontzeptu horretatik kanpo geldituko da entitate onuradunak gastu hori egin behar duenean diruz lagundutako jarduera bere kasa

gauzatzeko, hala nola begiraleei edo profesionaleri ordaintzea zerbitzu bat emateko, baldin eta entitate onuraduna arduratzen bada programaren plangintzaz eta jarraipenaz.

14. Bateragarritasuna.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izanen dira bestelako dirulaguntza edo laguntzekin, salbu xede bererako Osasun Departamentuak emandako beste laguntza batzuekin. Alabaina, proiektu edo programa bererako erakunde desberdinek emandako bi dirulaguntzaren edo gehiagoren zenbatekoa, guztira, ez da inolaz ere kostu osoa baino handiagoa izanen.

15. Laguntza itzultzea.

15.1. Hartutako zenbatekoa itzuli beharko da, osorik edo partez, programa gauzaten ez bada, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aipatzen diren zergatikoak gertatzen badira edo deialdi honetan berariaz aipatzen diren betebeharrak betetzen ez badira. Legez ezarritako kasuetan, gainera, bidezkoa izanen da dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli beharrene gaineko ebazpena ematen den arte sortutako berandutze-interesak ordaintzeko eskatzea.

15.2. Dirua itzultzea eskatzeko prozedurak aipatutako artikuluan xedatutakoari jarraituko dio, eta hasten denetik 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

15.3. Entitate onuradunak ia betebeharrak guztiak betetzen dituenean eta bere konpromisoak betetzeko jarrera garbia erakusten duenean, proportzionaltasun irizpideari jarraituz zehaztuko da zenbat diru itzuli behar den, ikusita dirulaguntza emateko ezarritako baldintzetatik zenbat eta noraino bete diren.

16. Erantzukizuna eta zehapen araubidea.

Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzen entitate onuraduna Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan ezarrita dagoen dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboentzako zehapen araubidearen mende egonen da, eta han ezarritako erantzukizunak izanen ditu.

Dirulaguntzen arloko zehapenak egiteko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

17. Aplikatu beharreko araudia.

Oinarri arautzaile hauetan ezarrita ez dagoen guztian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen xedapenak aplikatuko dira.

18. Deialdiaren eta oinarri arautzaileen aurka bidezkoak diren errekurtsio administratiboak.

Deialdi honen, oinarri arautzaileen eta hura garatzeko egintzen kontra gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Osasuneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 126.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

19. Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 15. artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 26. artikuluan xedatutakoarekin, Osasun Departamentuak jendaurrean jarriko ditu emandako dirulaguntzak, Nafarroako Gobernuaren nafarroa.eus webgune ofizialean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean, adierazirik deialdia, aurrekontuko zein programari eta kredituri egotzi zaizkien, onuraduna, emandako zenbatekoa eta dirulaguntzaren xedea.

20. Datuen babesa.

Eskaeran eta eskatzaileak deialdi honetan aurkeztutako gainerako dokumentazioan dauden datu pertsonalak tratatzeko, bete beharko da Datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa, hori ebaztearen ondorioetarako.

Hona hemen tratamenduari buruzko informazioa:

- Arduraduna: Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua (Bakearen plaza, z.g., 31002, Iruña).
- Helburuak: Osasun Zuzendaritza Nagusiaren dirulaguntzei buruzko espedienteak tramitatzea.
- Interesdunak: Dirulaguntzen entitate onuradunak ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoak.
- Datu pertsonalak:
 - Identifikaziorako: Pertsona juridiko onuraduna ordezkatzeko duen pertsona fisikoaren izen-abizenak eta IFZ.
- Hartzailea: Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua.
- Eskubideak: Interesdunak eskubide hauek baliatzen ahal ditu: datu pertsonalak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeak, datuen tratamendua mugatu edo kontu egiteko eta datuak eramateko.
- Adostasuna. Datu pertsonalak komunikatzea ezinbesteko baldintza da adierazitako helburua betetzeko. Adostasuna eman ezean datuen tratamendurako, ez da aurkeztutako eskaera tramitatuko. Orobat, adostasuna kentzeak ondorioak izan ditzake espedientearen tramitazioan, segun zer fasetan dagoen.

2. ERANSKINA

Gehieneko modulu diruz lagungarriak

- a) Foru Komunitateko Administrazioan indarra dutenak dira dirulaguntza jaso dezaketen gehieneko ordainsariak, langileriaren, kilometrajearen eta irakaskuntzaren kontzeptuetan: <http://portalempleado.admon-cfnavarra.es/sistema-empleo/sistema-empleo-p-blico/retribuciones> edo haien lan hitzarmenean indarra dutenak.
 - b) “Paziente eta familiarren elkarreentzako dirulaguntzak” izeneko lerroan, hauek dira gehieneko tarifa hurrengo jardueretarako:
 - Psikologia ordua: 40 euro.
 - Fisioterapia ordua: 25 euro.
 - Logopedia ordua: 27 euro.
 - Psikomotrizitate ordua: 25 euro.
 - Terapia okupazionalerako ordua: 20 euro.
 - Taldekoterapiaren ordua: 60 euro.
 - c) Jardunaldiak, irakaskuntza, prestakuntza, noizean behin garatu beharreko jarduerak eta antzekoetan, hauek izanen dira gehieneko tarifak:
 - Hitzaldia, irakaskuntza tailerren edo hezkuntza jarduerak puntuala: gehienez 40 euro ordua, eta 12 ordu proiektu bakoitzeko, salbu eta zenbait eskualde edo 3 entitate baino gehiago hartzen dituzten proiektuak (behar bezala justifikatua), horietan maximoa 72 ordukoa izanen baita proiektu bakoitzeko. Pazienteen elkarreentzako lerroan, muga ekonomikoak izanen du indarra, ez denbora-mugak.
 - Hitzaldia, jardunaldiak, mahai-inguruak, antzerkia, zineforuma: gehienez ere 150 euro saio bakoitzeko, 50 euro mahai-inguruan parte hartzeagatik eta 480 euro proiektu bakoitzeko, zenbait eskualde hartzen dituzten proiektuak salbu (behar bezala justifikatua).
 - Boluntarioen, gizonetako eta emakumezko monitorien prestakuntza eta eguneratzea: gehienez ere 480 € proiektu bakoitzeko.
 - Ariketa fisikoak egiteko taldeak: Eskualdeko proiektuetan baino ez da diruz laguntzen garraioa. Begirale bakoitzeko, 100 euro hilabetean gehienez. Urtebete irauten duten proiektuetarako, 1.000 euro talde bakoitzeko gehienez, eta ez 3 taldetik gora proiektu bakoitzeko.
 - Jardueren zabalkunde gastuak; gehienez 200 euro proiektu bakoitzeko.
 - Gastua jardueretarako paper-gauzetan; gehienez 300 euro proiektu bakoitzeko. Behar bezala justifikatutako eta zehaztutako beste material batzuk, gehienez ere 1.500 euro proiektu bakoitzeko.
- Eranskin honetan aurreikusitakoak baino tarifa handiagoak aurkezten badira, horien beharra justifikatu behar da, eta dagokion kudeaketa-unitateak jarduerak egin baino lehen onartu behar dituzte. Bestela, eranskin honetan aurreikusitakoak ordainduko dira, edozein dela ere haien egiazko kostua.

3. ERANSKINA

Proiektuen balorazioa

- a) Balorazio irizpideak.
 - Irizpide hauek erabiliko dira balorazioan:
 1. Aurkezturiko programaren bat-etortzea eta/edo osagarritasuna Osasun Departamentuaren lehentasunezko arlo eta helburuekin: 25 puntu arte. Honela banatuko da puntuazioa atal honetan:
 - 1.1. Bat etortzea Nafarroako edo Estatuko plan eta estrategiek: 15 puntu arte.

- 1.2. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Osasun Departamentuaren lehentasunezko osasun helburuak: 5 puntu arte.
- 1.3. Berdintasunaren eta generoaren ikuspegia edo lehentasuna duten beste batzuk sartzea: 5 puntu arte.
2. Aurkezturiko proiektuaren kalitatea: 40 puntu arte. Honela banatuko da puntuazioa atal honetan:
 - 2.1. Hasierako egoeraren deskripzioa eta helburuak: 13 puntu arte.
 - 2.2. Populazioa eta aurreikusitako eragina: 13 puntu arte.
 - 2.3. Metodologia eta ebaluazioa: 14 puntu arte.
 3. Programa aurrera eramateko entitatearen egokitasun maila: 35 puntu arte. Honela banatuko da puntuazioa atal honetan:
 - 3.1. Osagarritasuna eta integrazioa beste programa eta entitate batzuekin: 9 puntu arte.
 - 3.2. Komunitatearen eta xede-populazioaren parte-hartzea sustatzea, esku hartzeko eremu anitzak eta autolaguntza: 9 puntu arte.
- Xedeko biztanleek proposamenaren diseinuan eta plangintzan parte hartzea.
 - 3.3. Entitate eskatzailearen kofinantzazioa: 5 puntu arte, “Ijitoengan osasuna sustatzeko programetarako dirulaguntzak” eta “Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzak” izeneko lerroak salbu.
 - 3.4. Proiekturako gaitasun teknikoa: 6 puntu arte.
 - 3.5. Boluntarioen parte-hartzea: 3 puntu arte.
 - 3.6. Lokal publikoen erabilera edo/eta baliabideak eta lokalak beste elkarte batzuekin partekatzea: 3 puntu arte, “Adikzioak prebenitzeko udal planetarako dirulaguntzak” lerroa izan ezik.
- b) Balorazio azpi-irizpideak.
 - Deialdi honen dirulaguntzaren lerro bakoitzean, lerro horretako dirulaguntzen xedeari berariazko ezaugarriak aplikatzen zaizkien azpi-irizpideen arabera aplikatuko dira irizpide orokorrak. Hona zehaztuta azpi-irizpide horiek lerro bakoitzeko:
 - “Paziente eta familiarren elkarreentzako dirulaguntzak”.
 1. Aurkezturiko programaren bat-etortzea eta/edo osagarritasuna Osasun Departamentuaren lehentasunezko arlo eta helburuekin: 25 puntu arte.
 - 1.1. Bat etortzea Nafarroako edo Estatuko plan eta estrategiek: 15 puntu arte.
 - Bat etortzea Nafarroako 2014-2020ko Osasun Planaren lehentasunezko osasun estrategia batekin: 5 puntu.
 - Bat etortzea Nafarroako Osasun Departamentuaren beste estrategia edo programekin: Puntu bat estrategia bakoitzeko, eta gehienez ere 2 puntu.
 - Bat etortzea Emakumeek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko politika publikoetan parte-hartze sozial eta politikoa izateko 2018-2020 aldirako Estrategiarekin: 5 puntu arte.
 - Hizkera inklusiboaren erabilera: 1 puntu.
 - Hasierako egoeraren deskripzioan emakumeen ikuspegia eta egoera kontuan hartzea: 1 puntu.
 - Neurriak emakumeak programan sartzeko laguntzeko: 1 puntu.
 - Anislan sexuaren arabera bereizitako datuak eta datuen ebaluaziorako adierazleak: 1 puntu.
 - Neurri zuzentzaileak genero-arraila leuntzeko: 1 puntu.
 - Osasun Sistema Nazionalaren Kalitate Planeko osasun arloko estrategia batekin bat etortzea: puntu bat estrategia bakoitzeko, eta gehienez ere 2 puntu.
 - Bat etortzea Osasuneko Ministerioaren beste estrategia batzuekin bat: 1 puntu.
 - 1.2. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Osasun Departamentuaren lehentasunezko osasun helburuak: 5 puntu gehienez ere.
 - Desgaitasuna gutxitzea eta autonomia sustatzea: 1 puntu.
 - Norberak hautemandako osasuna eta osasunarekin ikusteko duen bizi-kalitatea hobetzea: 1 puntu.
 - Bizimodu osasungarriak sustatzea eta osasunerako arriskuak gutxitzea: 1 puntu.
 - Ahalduntzea eta norberaren zainketa sustatzea: 1 puntu.
 - Osasuneko emaitzetan desparekotasunak gutxitzea: 1 puntu.
 - 1.3. Berdintasunaren ikuspegia edo lehentasuna duten beste batzuk (generoa, euskara...) sartzea: 5 puntu arte.
 - Desberdintasun sozioekonomikoak kontuan hartzea: 2 puntu.
 - Jarduketak landa eremuetan: 1 puntu.

- Jarduketak haurrekin, nerabeekin edo zaharrek: 1 puntu.
- Eskaintza euskaraz: 1 puntu.
- 2. Aurkezturiko proiektuaren kalitatea: 40 puntu gehienez ere.
- 2.1. Hasierako egoeraren deskripzioa eta helburuak: 13 puntu arte.
- Hasierako egoeraren deskripzioa: 5 puntu arte.
- Deskripzioaren argitasuna: 1 puntu.
- Ukitutako jendeara kopurua: 1 puntu.
- Pazientearen profilarren definizioa/ukipen maila: 1 puntu.
- Beharren deskripzioa: 2 puntu.
- Helburuen argitasuna, zehaztasuna eta garrantzia: 8 puntu arte.
- Helburuen kalitatea: 4 puntu arte.
- Helburuen argitasuna: 1 puntu.
- Helburuen garrantzia: 1 puntu.
- Berariazko helburuen zehaztasuna: 1 puntu.
- Neurtzeko moduko berariazko helburuak: 1 puntu.
- Helburu mota: 4 puntu arte.
- Informazio helburuak: 1 puntu.
- Prestakuntza helburuak: 1 puntu.
- Helburu terapeutikoak: 2 puntu.
- 2.2. Populazioa eta aurreikusitako eragina: 13 puntu arte.
- Xede-populazioa: 4 puntu, gehienez ere.
- Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak: 1 puntu.
- Gaixotasun larria duten pertsonak: 1 puntu.
- Esku-hartze kolektiboa: 1 puntu.
- Esku-hartzea familietan: 1 puntu.
- Aurreikusitako eragina: 6 puntu, gehienez ere.
- Ezagutzaren transmisioa: 1 puntu.
- Trebetasunak lortzeko eta jarrerak aldatzeko aukera ematea: 1 puntu.
- Eginkizunak kontserbatu edo mantentzea: 2 puntu arte.
- Pazienteen bizi kalitatea hobetzea: 2 puntu arte.
- Efizientzia (programaren kostua pertsona bakoitzeko): 3 puntu, gehienez ere.
- 0 eurotik -100 bitarte: 3 puntu.
- 101 eurotik 300 bitarte: 2 puntu.
- 301 eurotik 500 bitarte: 1 puntu.
- 500 eurotik gora: 0 puntu.
- 2.3. Metodologia eta ebaluazioa: 14 puntu arte.
- Metodologia: 9 puntu, gehienez.
- Kalitatearen ebidentzia zientifikoa izatea: 1 puntu.
- Langileen egokitzapena: 2 puntu arte.
- Inklusio irizpideak: 2 puntu arte.
- Dezentralizazioa osasun arloen arabera: 2 puntu arte.
- Beste entitate batzuekiko lankidetzak: 2 puntu arte.
- Ebaluazioaren kalitatea: 5 puntu, gehienez ere.
- Egokitasuna: 1 puntu.
- Aldizkakotasuna: 1 puntu.
- Adierazleak: 1 puntu.
- Ebaluazio kuantitatiboa: 1 puntu.
- Ebaluazio kualitatiboa: 1 puntu.
- 3. Programa aurrera eramateko entitatearen egokitasun maila: 35 puntu arte.
- 3.1. Osagarritasuna eta integrazioa beste programa eta entitate batzuekin: 9 puntu arte.
- Osagarritasuna elkarrearen beste programa batzuekin: 1 puntu.
- Osagarritasuna beste elkarte batzuen programekin: 3 puntu arte.
- Osagarritasuna osasun sistemako programekin: 3 puntu arte.
- Osagarritasuna beste programa publiko batzuekin: 2 puntu arte.
- 3.2. Komunitatearen eta xede-populazioaren parte-hartzea sustatzea, esku hartzeko eremu anitzak eta autolaguntza: 9 puntu arte.
- Parte-hartze komunitarioa sustatzea: 3 puntu arte.
- Esku-hartzearen esparru pluralak: 3 puntu arte.
- Autolaguntza: 3 puntu arte.
- 3.3. Entitate eskatzailearen kofinantzioa: 5 puntu arte.
- Eskatutako finantzaketaren portzentajea: 3 puntu, gehienez ere.
- < % 20: 3 puntu.
- % 20-% 40: 2 puntu.
- % 40-% 60: 1 puntu.
- > % 60: 0 puntu.

- Finantzaketa publikoaren portzentajea: 2 puntu, gehienez ere.
- % 0-% 35: 2 puntu.
- % 35-% 70: 1 puntu.
- > % 70: 0 puntu.
- 3.4. Proiekturako gaitasun teknikoa: 6 puntu arte.
- Aurreko urteko proiektuaren justifikazioaren kalitatea: 4 puntu arte.
- Aurkezturiko: puntu bat.
- Irakurgarritasuna: puntu bat.
- Zehaztasuna: puntu bat.
- Proiektura egokitzea: puntu bat.
- Lehendabiziko aldiz aurkezten diren elkarrean kasuan, baloratuko da programa egin duten aurreko urteetan, dirulaguntzarik jaso ez badute ere partida horretan. Horretarako, exekuzio memoria aurkeztu beharko da.
- Azpiegitura egokia: puntu bat.
- Bere kasa egiten du jarduerak: puntu bat.
- 3.5. Boluntarioen parte-hartzea: 3 puntu arte.
- Boluntarioen parte-hartzea programan: 2 puntu arte.
- Boluntarioen lankidetzak elkarrean: puntu bat.
- 3.6. Lokal publikoen erabilera edo/eta baliabideak eta lokalak beste elkarte batzuekin partekatzea: 3 puntu arte.
- “GIB-HIESaren infekzioari loturiko programa komunitarioetarako dirulaguntzak”.
- 1. Aurkezturiko programaren bat-etortzea eta/edo osagarritasuna Osasun Departamentuaren lehentasunezko arlo eta helburuekin: 25 puntu arte.
- 1.1. Nafarroako edo Estatuko plan eta estrategiekin bat etortzea: 15 puntu arte.
- Lotura informazio eta komunikazio egokitu hobekuntzekin: 1 puntu.
- Lotura diagnostiko goiztiarren sustapenarekin: 3 puntu arte.
- Lotura tratamenduak eta irisgarritasuna hobetzeko laguntzarekin: 3 puntu arte.
- Lotura Nafarroako Osasun Departamentuaren berdintasun programan jasotako alderdiekin: 3 puntu arte.
- Lotura segimenduarekin eta zaintzekin: 3 puntu arte.
- Lotura eskubideen hobekuntzekin: 2 puntu arte.
- 1.2. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Osasun Departamentuaren lehentasunezko osasun helburuak: 5 puntu gehienez ere.
- Infekzio arrisku handiko pertsonengana eta infekzioak jota daudenengana bideratzen diren ekintzak: 5 puntu arte.
- Infekzioak jota daudenengana bideratzen diren ekintzak: 2,5 puntu arte.
- Infekzio arrisku handiko pertsonengana bideratzen diren ekintzak: 2,5 puntu arte.
- 1.3. Berdintasunaren ikuspegia edo lehentasuna duten beste batzuk (generoa, euskara...) sartzak: 5 puntu arte.
- Berdintasunaren ikuspegia: puntu bat.
- Genero ikuspegia: puntu bat.
- Kulturartekotasuna: puntu bat.
- Euskara: puntu bat.
- Berdintasunaren, generoaren, kulturartekotasunaren eta euskararen ikuspegi integratuak: puntu bat.
- 2. Aurkezturiko proiektuaren kalitatea: 40 puntu gehienez ere.
- 2.1. Hasierako egoeraren deskripzioa eta helburuak: 13 puntu arte.
- Hasierako egoeraren deskripzio egokia eta premiaren justifikazioa: 2 puntu arte.
- Zehaztasuna helburu orokorrak formulatzen: 3 puntu arte.
- Deskripzioaren kalitatea: 2 puntu arte.
- Berariazko helburuen zehaztasuna: 3 puntu arte.
- Genero desberdintasunen zehaztasuna: 3 puntu arte.
- 2.2. Populazioa eta aurreikusitako eragina: 13 puntu arte.
- Atzemateko eta motibatzekeko estrategiak/jarduerak. Definizioa eta zehaztasuna: 3 puntu arte.
- Xede-populazioaren egokitasun kualitatiboa/kuantitatiboa: 5 puntu arte.
- Efizientzia: pertsonaren eta jardueraren denboraren arteko haztapena: 5 puntu arte.
- 2.3. Metodologia eta ebaluazioa: 14 puntu arte.
- Jardueren deskripzioaren xehetasuna: 4 puntu arte.
- Jardueren kalitatea: espezifikotasuna, originaltasuna, alde aurreko efizientzia: 5 puntu arte.

–Zehaztasuna aurreikusitako ebaluazioa definitzen eta egokitzen (zer/nola/nork/noiz): 5 puntu arte.

3. Programa aurrera eramateko entitatearen egokitasun maila: 35 puntu arte.

3.1. Osagarritasuna eta integrazioa beste programa eta entitate batzuekin: 9 puntu arte.

–Estatuaren eremuko entitateek bultzatu edo lagundutako programak: 3 puntu arte.

–Eremu sozial bereko Nafarroako Foru Komunitateko entitateek sustatutako edo babestutako programak: 3 puntu arte.

–Gaien eremu bereko Nafarroako Foru Komunitateko entitateek sustatutako edo babestutako programak: 3 puntu arte.

3.2. Komunitatearen eta xede-populazioaren parte-hartzea sustatzea, esku hartzeko eremu anitzak eta autolaguntza: 9 puntu arte.

–Xede-populazioaren parte-hartze maila:

- Proiektuaren onuradun izatea: 2 puntu.
- Proiektua definitzen parte hartzea: 2 puntu.
- Proiektua garatzen parte hartzea: 2 puntu.
- Proiektua ebaluatzen parte hartzea: 2 puntu.
- Aurreko guztietan parte hartzea: 9 puntu.

3.3. Entitate eskatzailearen kofinantzazioa: 5 puntu arte.

–Nafarroako Gobernutik kanpoko ekarpena, > % 10ekoa: 5 puntu.

–Nafarroako Gobernutik kanpoko ekarpena, % 5-10 artekoa: 3 puntu.

–Nafarroako Gobernutik kanpoko ekarpena, < % 5ekoa: puntu bat.

3.4. Proiekturako gaitasun teknikoa: 6 puntu arte.

–Aurreko urteko proiektuaren justifikazioaren kalitatea: 6 puntu arte.

- Aurkezpena: puntu bat.
- Irakurgarritasuna: puntu bat.
- Zehaztasuna: puntu bat.
- Proiektura egokitzea: 3 puntu.

Lehendabiziko aldiz aurkezten diren elkarteen kasuan, baloratuko da programa egin duten aurreko urteetan, nahiz eta dirulaguntzarik jaso ez duten partida horretan. Ondorio horietarako, exekuzio memoria bat aurkeztu beharko da.

3.5. Boluntarioen parte-hartzea: 3 puntu gehienez ere.

–Boluntarioen zenbaterainoko parte-hartzea. 3 puntu gehienez ere.

3.6. Lokal publikoen erabilera edo/eta baliabideak eta lokalak beste elkarte batzuekin partekatzea: 3 puntu arte.

–Lokalen erabilera partekatua beste elkarte batzuekin jarduketak egiteko. 3 puntu arte.

–“Osasunaren sustapen eta prebentzio programa komunitarioetarako dirulaguntzak”.

1. Programaren bat-etortzea eta/edo osagarritasuna: 25 puntu arte.

1.1. Nafarroako edo Estatuako plan eta estrategiekin bat etortzea: 15 puntu arte:

Hauexek dira kontuan izan beharreko plan eta estrategiak:

–Osasun Sistema Nazionaleko Osasunaren Sustapenerako eta Prebentziarako Estrategia.

–Nafarroako 2014-2020ko Osasun Plana, Osasun Departamentuarena.

–Osasun Publikoaren 2016-2020ko Plana, NOPLOirena.

Osasun arloko gai hauetako batzuk landuz gero eta 15 puntu gehienez ere:

- Hezkuntza parenterala: 15 puntu.
- Mantenua: 15 puntu.
- Ariketa fisikoa 15 puntu.
- Segurtasuna eta istripuen prebentzioa: 15 puntu.
- Emozioen ongizatea, estresaren kudeaketa: 15 puntu.
- Besteak eta norbera zaintzea: 15 puntu.
- Loa: 5 puntu.
- Bizkarra zaintzea: 5 puntu.

–Osasuna sustatzeko beste gai batzuk, planekin bat heldu direnak: 5 puntu.

1.2. Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren lehentasunezko osasun helburuak:

–Haurtzaroaren etapan lan eginez gero: 5 puntu.

1.3. Berdintasunaren ikuspegia edo lehentasuna duten beste batzuk (populazio kaltebera, generoa, euskara...) sartzeara:

- Ikuspegi 1: puntu bat.
- 2 ikuspegi: 3 puntu.
- 3 ikuspegi edo gehiago: 5 puntu.

2. Aurkezturiko proiektuaren kalitatea: 40 puntu arte.

2.1. Hasierako egoeraren deskripzioa eta helburuak: gehienez 13 puntu.

–Egoeraren deskripzioa eta premiaren justifikazioa:

• hasierako egoera eta heltzen diren osasun premiak behar adina deskribatu edo proiektuaren beharra justifikatuz gero: 7 puntu.

• Partzialki deskribatuz gero: 3 puntu.

• Deskribatu ezean: 0 puntu.

–Helburuen formulazioa:

• helburu orokor eta berariazko garrantzitsu, zehatz eta argiak formulatuz gero: 3 puntu.

• Helburu orokorrak formulatuz gero: puntu bat.

• Ez bada helbururik formulatzen: 0 puntu.

–Kalitatea eta beharretara egokitzea:

• helburuak beharretara egokituz gero, 3 puntu.

• Partzialki egokituz gero, puntu bat.

• Ez badira egokitzen, 0 puntu.

2.2. Populazioa eta aurreikusitako eragina: 13 puntu arte.

–Atzemateko eta/edo motibatuzko estrategiak/jarduerak.

• Erabiltzen badira: 3 puntu.

• Ez badira erabiltzen, 0 puntu.

–Onuradunak:

• 20 pertsona edo gehiago, 5 puntu.

• 20 pertsonatik behera: 3 puntu.

–Iraupena.

• 10 ordutik gora, 5 puntu.

• 10 orduko iraupena edo gutxiagokoa badu, 3 puntu.

2.3. Metodologia eta ebaluazioa: 14 puntu arte.

–Osasuna sustatzeko erabilitako estrategiak (herritarrentzako argibideak, taldeko osasunerako hezkuntza, esku-hartze komunitarioak, inguruneke neurriak):

• Estrategia 1 erabiliz gero: puntu bat.

• 2 estrategia erabiliz gero: 2 puntu.

• 2 estrategia baino gehiago erabiliz gero: 5 puntu.

–Jardueren deskribapena (zer, nola, noiz, iraupena):

• Osoa: 3 puntu.

• Partziala: puntu bat.

–Egokitasuna.

• Jarduerak helburuei, populazio onuradunari eta estrategiei egokituz gero: 3 puntu.

• Partzialki egokituz gero: puntu bat.

–Ebaluazioa.

• Xeheki azalduta (zer, nola, nork eta noiz eginen den): 3 puntu.

• Partzialki azalduta: puntu bat.

3. Programa aurrera eramateko entitatearen egokitasun maila: 35 puntu arte.

3.1. Osagarritasuna eta integrazioa beste programa eta entitate batzuekin: 9 puntu arte.

–3 entitate/zerbitzu/baliabidek edo gehiago parte hartuz gero: 9 puntu.

–2 entitate/zerbitzu/baliabidek parte hartuz gero: 6 puntu.

–Entitate/zerbitzu/baliabide 1ek parte hartuz gero: 3 puntu.

3.2. Komunitatearen eta xede-populazioaren parte-hartzea eta autolaguntza sustatzea: 9 puntu arte.

–Hartzaileek parte hartu badute proiektuaren diseinuan: 5 puntu.

